

OINARRIZKO DOKUMENTUA

BLACK FRIDAY,
BLACK SATURDAY,
BLACK SUNDAY...

MUNDUAN MILIOIKA LAGUNENTZAT
EGUN GUZTIAK DIRA BELTZAK



Gure kontsumitzeko erak eragina dauka pertsona zaurgarrienengan

BIDEZKOA DENA KONTSUMITZEA ZURE ESKU DAGO



GURE KONTSUMOAK GIZA ESKUBIDEETAN DUEN ERAGINA

Sarrera

Kanpaina honen bidez, arreta gure eguneroko kontsumo-ohituretan jarri nahi dugu. Egunero automatikoki eta pentsatu gabe egiten ditugun keinuek guk uste baino askoz ere eragin handiagoa dute planetan eta milioika pertsonaren bizitzetan, eta horretan sakondu nahi dugu.

Kontsumo-ohiturak Mendebaldean

Mendebaldean, kontsumismoa oso barneratuta dugu guztiok, eta arazoak izaten ditugu benetako beharren eta publizitateak ezartzen dizkigun beharren artean bereizteko.

Dokumentuan, **ngure ohiturek pertsonak bizitzeko behar dituzten oinarrizko baliabideetan zer-nolako eragina duten** azalduko dugu. Gehiago eta merkeago kontsumitu nahi dugu, eta merkatuak horretarako aukera ematen digu, baina ez dugu pentsatzen jokabide horrek zer ondorio dituen.

Ibilbidearen hasieran, gure **cur-kontsumoak** zer-nolako eraginak dituen aztertuko dugu.

Bigarren atalean, **gure ohiturek zuzenean lurra ematen duenetik bizi diren pertsonen gain zer-nolako eragina duten** (% 50etik gora, herrialde pobretuetan) aztertuko dugu. Dieta mota bat izateak edo produktu jakin batzuk kontsumitzeak lurra lapurtzen dituen eta urtero milaka pertsona ezer gabe uzten dituen sistema baten partaide egiten gaituela ikusiko dugu. Afrikan soilik, esku gutxi batzuetan metatutako lurren kopurua Kenyako lurraldearen azaleraren adinakoa da; eta, mundu osoan, Oxfamen arabera, 200 milioi hektarea gutxi batzuen eskuetan metatu dira azken hamarkadan (hektarea-kopuru hori Espainiak, Portugalek, Frantziak, Italiak eta Alemaniak batera hartzen duten azaleraren parekoa da).

Hirugarren atalean, **gure kontsumo-ohituren eta manufaktura-industriak egiten duen lan-esplotazioaren arteko**, clotura aztertuko dugu, eta haurren esplotazioaz arituko gara bereziki. Gaur egun, 80 milioi hurrek egiten dute lan lanpostu arriskutsuetan, eta horietatik 22.000 inguru hiltzen direla jotzen da¹.

Azkenik, guk sortzen ditugun **hondakinak** nora eramaten diren eta **gure ohiturek hondakin horiek jasaten duten prozesuan dituzten ondorioak** aztertuko ditugu. Herrialde pobretuetara bidaltzen ditugu gure hondakinak, eta, horren ondorioz, herrialde horietako ekosistemak suntsitzen ari dira, zabortegeien inguruan dinamika ekonomiko mafiosoak sortu dira, eta hurrek tratatu txarrak jasaten dituzte eta beren osasunerako oso arriskutsuak diren lanak egiten dituzte.

Bi ildo nagusi daude dokumentuaren atal guztietan: alde batetik, **hautzaroa** eta, bestetik **egiten ditugun gauza guztiak elkarren artean lotuta daudelako** ideia; egiten ditugun gauza horiek ondorio suntsitzaileak dituzte munduko pertsona pobreenen eta, ekosistemaren gain, eta ezin

¹ OIT, Datuak eta kopuruak.

dugu, beraz, ez etikoki eta ez moralki, beste alde batera begiratu.

Gai izan behar dugu ikusteko, sinesteko eta transmititzeko formazioari eta informazioa jasotzeari eskainitako denbora oso baliotsua dela eta planeta, gizadia eta gu geu hobetzeko izango dugun aukerarik onena dela.

Azkenik, garapenerako hezkuntzaren zeregina ere azpimarratu behar da. **Garapenerako hezkuntza** da aldaketa bultzatzeko funtsezko bidea.

Hezkuntza da aldaketak lortzeko tresna boteretsuena, eta hezteko eta balioak transmititzeko modurik onena helduok horren eredu ematea da.

Hezkuntzak, ona izateko, munduaren ikuskera holistikoan oinarritu behar du, ikuskera horren arabera, **dena lotuta baitago**. Gure ekintzek ondorioak dituzte besteengan, eta, hori ulertzeko, beharrezkoa da haurtzarotik **ikuspegi kritikoa** sustatzea².

Horrekin batera, **giza eskubideen errespetuan**, eta, bereziki haurren eskubideen errespetuan oinarritutako ikuspegia ezagutzera eman behar dugu **hezkuntza-sistema** osoan.

GGKEek sentsibilizazio-kanpainak sustatu behar dituzte, eta **egoera bidegabeak salatu eta irtenbideak proposatu behar dituzte**. Eta, batez ere, herritarrek ez dute ahaztu behar boterea beraien gain dagoela, eta, elkarrekin, **amesten dugun mundua lortu ahal izango dugula**.

² UNESCO, garapenerako hezkuntza. <http://www.unesco.org/new/es/education/themes/leading-the-international-agenda/education-for-sustainable-development>

1. URA IZATEKO ESKUBIDEA

Sarrera, uraren arazoa

*“Mundu honek zor sozial larria du edateko ura eskuragarri ez duten pobreekin, duintasun besterenezinean oinarritutako bizitzeko eskubidea ukatzen baitzaie”
Laudato Si³*

Ura da Lur planetako bizia mantentzeko baliabide nagusia. Ura eskuratzeko aukerak zehazten du biztanleen bizi-kalitatea. Kontsumo pertsonala, argindarra, nekazaritza, abeltzaintza, industria, garraioa, saneamendua, osasuna, higiena..., urik gabe egin ezingo genituzkeen jardueretako batzuk baino ez dira.

Planetan dagoen ur guztitik, % 3 soilik da giza kontsumorako ona, eta ehuneko hiru horretatik, heren bat baino gutxiago erabil dezakegu (gainerakoa ezin dugu eskuratu)⁴.

Gaur egun, ur nahikoa dugu planetan bizi garen zazpi mila milioi pertsonak hornitzeko⁵. Baina ur hori gaizki banatuta dago, eta modu desegokian zaintzen eta ustiatzen dugu. Gainera, etorkizuneko aurreikuspenen arabera, munduko biztanleriaren erdia ur-eskasia dagoen inguruetan biziko da⁶ eta, 2050. urterako, ur-eskaria % 55 handituko da⁷.

Hori dela eta, errespetuz erabili behar dugu ondasun global hori, eta jabetu behar dugu guk kontsumitzen ditugun produktu askok ur gehiegi erabiltzen dutela. Uraren banaketa bidezkoa zaindu, babestu, bermatu eta ahalbidetu behar dugu. Eta, herritar politiko gisa, uraren erabilera blindatzeko kontratu soziala aldarrikatu behar dugu, interes pribatuak gaindituta.

Zergatik ez dago guztiontzako urik? Ura lortzeko lehia

Ondasun horrek dituen ezaugarriak kontuan hartuta, hainbat interes daude ura lortzeko lehiaren atzean, eta interes horiek guztiek oso logika partikularrak dituzte: maila pertsonaletik hasi eta maila juridiko, politiko, ekonomiko, teknologiko eta geopolitikora arte. Hau da, uraren inguruan liskarrak daude, bereziki baliabide hori urria den inguruetan.

Inguruneak presio hidrikoan duen eragina da gatazken beste arrazoietakoa bat. Inguru batzuek baldintza meteorologiko, klimatiko eta fisiko hobeak nahiz baliabide egokiagoak dituzte; beste inguru batzuk, aldiz, lehorragoak dira eta baldintza okerragoak dituzte. Gainera, klima-aldaketak larriagotu egin du lehendik ere ur-gabezia zuten inguruen egoera⁸.

Panorama geopolitikoan (herrialdeen artean), ur-baliabide partekatuek tentsioak eragiten dituzte maiz. Mugen zeharkako 276 ibai inguru daude. Horrela banatzen dira kontinenteetan: Afrikan 64, Ipar Amerikan 46, Asian 60, Europan 68, Hego Amerikan 34. Partekatutako ur horiek gatazka eta tentsio ugari eragiten dituzte. Hau da, uraren kontrola lortzeko borroka handiak izaten dira, eta, oro har, antolatzeke ahalmen txikiagoa dutenak irteten dira galtzaile, hau da, segurtasun ju-

3 Laudato Si. 26. or http://w2.vatican.va/content/dam/francesco/pdf/encyclicals/documents/papa-francesco_20150524_enciclica-laudato-si_sp.pdf

4 Ur eskuragarria: <http://www.laenergiadelcambio.com/como-esta-distribuida-el-agua-del-planeta>

5 Agua para todos pero no para todo. http://www.eldiario.es/zonacritica/Agua_6_368223185.html

6 OME, Ura, datuak eta kopuruak <http://www.who.int/mediacentre/factsheets/fs391/es/>

7 UNESCO <http://unesdoc.unesco.org/images/0022/002269/226961S.pdf>

8 Klima-aldaketa eta ura: <http://www.greenfacts.org/es/recursos-hidricos/recursos-hidricos-foldout.pdf>

ridiko eta politiko ahula duten herrialdeetako (herrialde pobretuak) pertsonak. Zenbakiei begirata, 768 milioi pertsonak ez du ur-iturri egokituak erabiltzeko aukerarik, 2.000 milioi pertsonak ez du edateko ona den ura eskuratzeko aukerarik, eta 2.500 milioi pertsonak ez du saneamendurako aukerarik⁹.

Pertsonak, eskualdeak eta kontsumoa: datu globalak (desorekaren ebidentzia)

Ura eskuratzeko pertsonako aukera txikiena duten eskualdeak bat datoz inguru pobretuenekin: Afrikako hegoaldea, Erdialdeko eta Hegoaldeko Amerika, India eta Txina. Batez besteko kontsumo globala 1.240 m³-koa da pertsonako eta urteko. Espainiak eta beste herrialde batzuek batez besteko kontsumo hori bikoiztu egiten dute ia, eta 2.500 m³ inguru kontsumitzen dituzte pertsonako eta urteko.

Afrikan, eguneko eta pertsonako batez bestekoa 10 litro ingurukoa da zenbait eskualdetan; Espainian, berriz, batez beste 171 litro kontsumitzen ditugu eguneko.

Uraren banaketa herrialdeetan, per capita errentaren arabera

	Errenta altua	Errenta baxua	Munduko batez bestekoa	Espainia	EB
NEKAZARITZA	30	82	77	62	21
INDUSTRIA	59	10	22	25	63
GIZA KONTSUMOA	11	8	8	12	16

Ura eta saneamendua izateko giza eskubidea.

Ura eta saneamendua izateko giza eskubidea eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen barnean txertatzen da¹⁰. Gaur egun, giza eskubideen hainbat arlotako nazioarteko lau hitzarmenek berriazko betebeharrak ezartzen dituzte zenbait taldek ura eskuratzeko duten eskubidea blindatzeko (emakumearen bazterketa, haurrak, lan-baldintzak eta ahalmen urritasuna)¹¹.

Ura eta saneamendua izateko giza eskubideak oinarrizko sei alderdi bete behar ditu¹²:

1. Ez dago ura izateko eskubiderik, ur-iturrietara iristeko edo saneamendua izateko askatasunik ez badago, bereziki tradizionaltzat jotzen diren iturrirei eta saneamenduari dagokienez. Ez dago ura izateko eskubiderik kontsumora zuzendutako ur-baliabideak kutsatzen badira.
2. Ez dago ura izateko eskubiderik, pertsona bakoitzari ez bazaio egunero edateko ona den ur-kantitate gutxienekoa bermatzen, kontsumoa eta saneamendua hornitzeko adina.
3. Etxean, bizimodu duina izateko moduko kontsumo etengabea eta nahikoa bermatu behar du ura izateko giza eskubideak (Osasunaren Mundu Erakundearen arabera, 50 litrotik 100 litrorara behar dira egunero). Arreta berezia eskaini behar zaie talde ahulenei, hala nola haurdun dauden emakumeei, haurrei eta HIESak jotako gaixoei.
4. Urak osasungarria izan behar du, bizkarroirik edo mikrobiorik gabea, eta kolore eta usain onargarriak izan behar ditu.
5. Ur-zerbitzuak eskuratzeko aukerak zenbait baldintza bete behar ditu. OMEren arabera, etxean

9 UNESCO <http://unesdoc.unesco.org/images/0022/002269/226961S.pdf>

10 Giza Eskubideak - Ura: <http://www.derechoshumanos.net/derechos/#agua>

11 NBE, HABITATA. Ura izateko eskubidea. 9. or.: <http://www.ohchr.org/Documents/Publications/FactSheet35sp.pdf>

12 Ib. 12. or.

edateko urik ez dagoenean, edateko ona den ura duten iturrietara kilometro bateko distantzia egon behar du gehienez, bizi baldintza arruntetan garatu ahal izateko.

6. Azkenik, pertsona eta talde guztiek ura eskuratzeko aukera bera izan behar lukete.

Osasuna sustatzeko urak bete behar dituen baldintzen koadroa¹³

Zerbitzu-maila	Eskuratzeko distantzia	Hornitutako premiak	Osasunean duen eragina
Eskuragarritasunik ez (eguneko 5 litro baino gutxiago)	Ura biltzen den tokitik 1.000 metrora baino gehiagora (30 min edo gehiago)	Kontsumoa: ez dago bermatuta. Higienea: ezinezkoa da (iturrian bertan egiten ez bada behintzat).	Oso handia
Oinarrizko eskuragarritasuna (eguneko 20 litro baino gutxiago)	Ura biltzen den tokitik 100 metro eta 1.000 metro bitartean (15-20 min)	Kontsumoa: bermatu egin behar da. Higienea: eskuak garbitzea eta elikagaiak garbitzea posible da; zaila da arropen garbiketa eta bainua bermatzea, iturrian bertan egiten ez bada behintzat	Handia
Tarteko eskuragarritasuna (eguneko 50 litro inguru)	Iturri publiko baten bidez hornitutako ura. Ura biltzen den tokitik 100 metrora edo 5 minutura.	Kontsumoa: bermatuta dago. Higienea: oinarrizko higiena eta elikagaien garbiketa bermatuta dago; arropen garbiketa eta bainua ere bermatu behar dira.	Txikia
Eskuragarritasun ona (eguneko 100 litro edo gehiago)	Hainbat iturriren bidez hornitutako ura.	Kontsumoa: premia guztiak hornituta daude. Higienea: premia guztiei erantzun behar zaie.	Oso txikia

Ura eskuratzeko aukera eta haurren osasuna

Egoera txarrean dagoen urak ondorio larriak ditu herrialde pobretuetako talde ahulenetan (haurdun dauden emakumeak, adingabeak, adineko pertsonak eta gaixoak). OMEk egoera txarrean dagoen urarekin zuzenean lotutako 25 gaixotasun jasotzen ditu¹⁴.

Munduko haurren heriotzen % 80 egoera txarrean dagoen urarekin lotutako gaixotasunen ondorio dira¹⁵ (herrialde pobretuetan, egoera txarrean dagoen urak haurren heriotzen % 90 eragiten ditu¹⁶). 4.000 haur inguru hiltzen dira egunero koleraren, beherakoaren eta abarren ondorioz¹⁷; gaixotasun horiek erabat ahaztuta ditugu herrialde aberatsetan.

Haurren osasunak lotura zuzena du edateko ona den uraren kontsumoarekin. Egoera txarrean dagoen urak haurraren garapen immunologiko egokia eragozten du, eta betirako kaltetzen du haren osasuna.

13 OME, taula: http://www.who.int/water_sanitation_health/diseases/wsh0302/es/

14 OME, gaixotasunak: http://www.who.int/water_sanitation_health/diseases/diseasefact/es/

15 2011ko albistea: <http://www.elmundo.es/elmundo/2011/11/18/solidaridad/1321616504.html>

16 NBE, Habitata. Ura haurtzaroan. 23. or.

17 Unicef. Haurren bizirapena: <http://www.unicef.es/infancia/supervivencia-infantil>

Bestalde, egoera txarrean dagoen urak intsektu arriskutsu asko erakartzen ditu tropikoko hainbat ingurutan, hala nola malaria kutsatzen duten intsektuak, nagusiki hurrei eragiten dietenak.

Uraren kalitatean dugun eragina. Zer ari gara galtzen?

Azken mendean, izugarri txikitu da uraren kalitatea. 1970. urtetik, % 25 murriztu da ur gezako arrain-populazioen neurria¹⁸. Gizakia da horren errudun, Lurraren berotzea eragin baitu, sistematikoki jaurtitzen baititu hondakinak uretara (batez ere herrialde pobretuetan), eta arrantza intentsiboa bultzatzen baitu. Giza kontsumoari nahiz bioaniztasunaren galerari eta ekosistemen sunsiketari eragiten die horrek.

Egoera horrek gehien nori eragiten dion galdetzen badiogu gure buruari, herrialde pobretuetan baliabide gutxien dituzten familiei eragiten diela gehien ikusiko dugu, babesgabe baitaude enpresa handien gehiegikeria ekologikoen aurrean, herrialde horiek ingurumenaren arloan dituzten legeria laxoen ondorioz. Lakuak, ibaiak, ubideak, etab. kutsatzen dira, eta, inguru haietan bizi den jendea gaixotzeaz gain, jende horri jaten ematen dion bioaniztasuna hil egiten da. Kodaikanal Won't de Jhatkaa izeneko rap abestiak argi adierazten digu hori (<https://www.youtube.com/watch?v=nSal-ms0vcl>).¹⁹

Milurteko Garapen Helburuen eragina urean

Milurteko Garapen Helburuen artean, 7. helburuak ("Ingurumenaren iraunkortasuna bermatzea") 2015. urtean munduko biztanleen % 91k ur ona eskuratzeko aukera izan behar zuela ezarri zuen. Hala ere, ur-eskasiak munduko biztanleen % 40ri eragiten dio oraindik ere²⁰. Bide luzea dago oraindik egiteko, eta, horrelako erronken aurrean, ahalegin guztiak motz gelditzen direla dirudi.

Milurteko Garapen Helburuei esker, uraren arloan, 1990. urtetik 2.000 milioi pertsonak etxeko egoera hobetzea lortu da, saneamendu-instalazio egokiak jarri dituztelako.

2.300 milioi pertsona gehiagok eskuratu dute edateko ona den ura (OME-Unicef). Edateko ona den ura eskuratzeko aukera hedatzeari esker, haurren hilkortasunak behera egin du, eta baita amen hilkortasunak ere. Guztira, 1970. urtetik % 64 murriztu da haurren hilkortasuna, eta % 45 amen hilkortasuna.

Baina datu horiek ez dira inola ere nahikoa, eta lanean jarraitu behar dugu, munduko biztanle guztiek ura eskuratzeko aukera izan arte.

Kontsumo-ohiturak berriz pentsatzea Mendebaldeko munduan

Gaur egun oraindik ura izan arren, inork ez digu bermatzen etorkizunean egoera berbera izango dugunik. Gure eguneroko bizitzan ondasun estimatu hori nola erabiltzen dugun pentsatu behar dugu berririo. Uraren erabilera blindatuko duten nazioarteko hitzarmenek ez dute ezertarako balioko gure inguruan ura xahutzen jarraitzen badugu.

Espanian, komunean eta sukaldean kontsumitzen dugu ur gehien egunerokoan²¹.

Badaude ura aurrezteko modu errazak.

18 Noticias Mallorca <http://www.noticiasmallorca.es/noticias/Actualidad/2015/09/19/46054-3217054.php>

19 Adib.: Canal kodai India (Rap): <https://www.youtube.com/watch?v=nSal-ms0vcl>

20 Cooperación eficaz, El Macroscopio de la AOD <http://www.mainel.org/cooperacioneficaz/?p=1033&gclid=CKeK9aClwsgCFReZGwodpvUliA>

21 Ibíd. Inf_ecol_acc

- Komunean²²:
 - Dutxatzea (50 litrotik 100 litrorara bitartean behar dira)
 - Bainuontzia erabiltzea (150 litrotik 250 litrorara bitartean behar dira)
 - Txorrota irekita uztea hortzak garbitzen ditugun bitartean (25 litro xahutzen dira)
 - Jarioak dituzten txorrotak eta tangak konpontzea (90 litrotik 100 litrorara aurrezten da eguneko)
 - Ura aurrezteko elementuak erabiltzea: iragazkiak txorrotetan...

Hori guztia eginez, hilean milaka litro aurrez ditzakegu.

- Sukaldean
 - Ontzi bat erabiltzea platerak xaboiarekin garbitzeko, eta beste bat uretan pasatzeko (115 litro aurrezten dira)
 - Txorrotetako jarioak konpontzea (eguneko 90 litro aurrezten dira)
 - Txorrotaren azpian desizoztea (22 litro xahutzen dira elikagai bakoitzeko)
 - Garbigailua beteta erabiltzea (100 litro aurrezten dira)
 - Ontzi-garbigailua beteta erabiltzea (40 litro aurrezten dira)

Erabilera zuzeneko ekintza horietatik harantzago, argi izan behar dugu gure **eguneroko kontsumo-ohituren bidez**, enpresek hartzea nahi dugun norabidean eragin dezakegula. Izan ere, kontsumitzen dugun guztia ekoizteko milaka litro ur erabiltzen dira. Adibidez, **kotoizko elastiko bat** kotoizko elastiko bat **4.000 litro ur inguru behar dira, eta zapata-pare bat egiteko, berriz, 8.000 litro inguru**²³.

Elikagaiei dagokienez, haragiek, gaztek eta zenbait frutek uraren erabilera intentsiboak egiten dituzte, eta produktu horien kontsumoa arrazionalizatuz ur-erabilera hori murriz daiteke. Ez da beharrezkoa haragia egunero jatea, ohitura txarra da. Hemen duzue horren adibide bat: **hanburgesa bat jateak 2.500 litro ur erabiltzea hartzen du barnean**²⁴.

Gure ohiturek gure inguruetik hareagoko eraginak dituzte - Iparraren eta Hegoaren arteko erlazioa

Jabetu gaitezenez Iparraldean ura erabiltzeko dugun moduak beste batzuentzat dituen ondorioez. Ura beharrezkoa da industriako ekoizpen-prozesu guztietarako. Horregatik, arduraz kontsumitu behar dugu, eta ekoizpenean arduraz jokatzeko duten prozesuetan inplikatu behar dugu; hau da, hirugarrenei gutxien eragiten dieten prozesuetan. Arreta berezia eskaini behar diegu herrialde pobretuetan ekoizten diren produktuei, ondorioak larriagoak baitira hango biztanleentzat.

Elikaduraren sektorea kasu paradigmaticoa da gai honetan. Gehiegi kutsatzeaz gain²⁵, ur asko behar du elikagaiak ekoizteko. **Milaka kilometroko eragina inplikatu du horrek**, eta han bizi diren pertsonen giza eskubideak hausten dira. Urtean milioika hektarea suntsitzen dira abereentzako elikagaien ekoizpena areagotzeko, eta **lurraren galera, bioaniztasunaren galera eta milaka kilometrorara salduko diren produktuak ekoizteko ura xahutzea inplikatu du horrek**. Desjabetzeak gertatzen dira, lurrak eskuratzen dituzten enpresen gehiegikeriak, lur horiek saltzen

22 Ibid. Inf_ecol_acc

23 Nazioen aztarna hidrikoa: http://hispagua.cedex.es/sites/default/files/especiales/especial_huella_hidrica/necesidades.htm

24 Ur-kontsumoa, produktuen arabera: <http://fotos.subefotos.com/8acd17036568afbb7b561f420d88eb2fo.jpg>

25 FAO <http://www.fao.org/Newsroom/es/news/2006/1000448/index.html>

dituzten gobernu ustelak daude, **airea kutsatzen da** eta, atal honetan aztertzen ari garen gaiarekin lotuta **ur-erreserba handiak kutsatzen dira**, hondakinak eta gai toxikoak uretara isurtzearen ondorioz. Baina ez dugu etsi behar, eta gogoan izan behar dugu gure ekintzekin joera jasanezina geldiarazten eta iraultzen has gaitzkeela.

“Basogabetzearen arrazoi nagusietako bat basoak larreak ezartzeko soiltea da, bereziki Latinoamerikan; izan ere, Amazonasen desagertu diren basoen % 70 larreetara zuzendu dira. FAO”

HAURREN ESKUBIDEAK ETA URA:

Bizitzeko eskubidea

NBEren arabera, ur kutsatua kontsumitzeagatik hildakoen kopurua gerraren eta indarkeriaren ondorioz hildakoen kopurua baino handiagoa da. Ur garbirik gabe bizirautea edo baldintza onetan haztea loteria hutsa da milioika haurrentzat. 4.000 haur inguru hiltzen dira egunero egoera txarrean dauden ur-iturriak erabiltzeagatik. OMEren arabera, 50 litrotik 100 litrora bitartean behar dira pertsonako eta eguneko bizimodu duina egin ahal izateko, eta 20 litrotik 40 litrora bitartean bizirik irauteko, arriskuan bada ere.

Hezkuntzarako eskubidea

Asia eta Afrikako landa-inguruetako emakume gazteek, batez beste, 6 km egin behar izaten dituzte ur-iturrietara iristeko²⁶. **Nahitaez egin behar izaten dute zeregin hori, eta hezkuntza-sistematik baztertuta gelditzen dira biztanle gazteen erdiak, nagusiki emakumeak.** Lotura zuzena dago amaren hezkuntza-mailaren eta familiaren bizi-kalitatearen eta bizi-itxaropenaren artean. Adibidez, hezkuntzarako eskubideari dagokionez, hezkuntza-instituzioek ez badituzte komun bereziak neskentzako, guraso askok ez diete beren alabei eskolara joaten uzten, batez ere hilekoa jaisten zaienetik aurrera.²⁷

Elikadurarako eskubidea

Nekazaritza eta abeltzaintza ur-iturrien erabileraren mende daude zuzenean. Herrialde pobretuetan, sektoreen araberrako ur-kontsumoa aztertuz gero, argi ikusten da erabilera nagusia nekazaritzara zuzentzen dela. Baina bada datu kezagarri bat kontu honetan: FAOren arabera (Food and Agriculture Organization, Nazio Batuen Erakundekoa), herrialde pobretuetako 873 milioi pertsonak elikadura-urritasuna du, eta horren arrazoi nagusietako bat elikagaiak ekoizteko ur gutxi erabiltzeko aukera dutela da. Elikadura-urritasuna kronikoa bada haurtzaroan, bizi osorako kalteak izango ditu haurrak. Unicefen arabera, urtean, batez beste, 200 milioi adingabek elikadura-urritasuna pairatzen dute²⁸. Ura eskuratzeko aukerarik ez izatea da haurren elikadura-urritasunaren ezkutuko arrazoi zuzenetako bat²⁹.

26 NBE, Habitata. Ura izateko eskubidea. 10. or. <http://www.ohchr.org/Documents/Publications/FactSheet35sp.pdf>

27 *Ibíd.* p. 17

28 Unicef. Desnutrición infantil. Causas, consecuencias y estrategias para su prevención y tratamiento (2011) <https://www.unicef.es/sites/www.unicef.es/files/Dossierdesnutricion.pdf>

29 *Ibíd.* p. 6.

Osasunerako eskubidea

Higienea eta ura baldintza onetan egotea dira osasunaren kalitatean eragiten duten bi faktore nagusiak. Gaur egun, 2,6 milioi pertsonak ez du oinarritzko saneamendu-instalazioak erabiltzeko aukerarik. Gogora ekar dezagun giza kontsumorako ona ez den ura kontsumitzea dela 5 urtetik beherako haurren heriotzen arrazoi nagusietako bat. Kontsumoaz hitz egiten badugu, egunero 884 milioi pertsonak ez du ur-iturri seguruak erabiltzeko aukerarik (OME-Unicef).

Nortasunerako eskubidea

Ura eskuratzeko aukerarik ez duten pertsonak pobreenak izan ohi dira. Ura eskuratzeko aukerarik ez izatean, askotan, dituzten diru-sarrera apurrak ura eskuratzera zuzendu behar izaten dituzte. Haurren kasuan, horrek esan nahi du trebetasunen formazioa alde batera utzi behar izaten dutela, hezkuntza edo erabateko garapen pertsonala baztertu behar izaten dutela, formazio horrek nortasunerako eskubidea garatzea bermatuko lukeen arren. Urik gabe, bizia aldatu egiten da, bai eta ingurunearekiko eta besteekiko dugun harremana ere, eta horrek guztiak norberaren nortasun pertsonala eta nortasun kolektiboa aldatzen ditu.

Askatasunerako eskubidea

Ur faltak hezkuntzatik urruntzen ditu haurrak, eta gaixotu egiten ditu. Egoera horrek zuzenean eragiten du haurrak beharrezko formazioa jasotzeko duen gaitasunean eta bere askatasunerako, elkartzeko eta iritzia emateko eskubideak ezagutzeko, aldarrikatzeko nahiz eskubide horiez gozatzeko aukeran.

Ur bila joan beharrak askatasuna murrizten du, eta neskek eta emakumeek jasaten dute gehien murrizketa hori. Afrikako landa-inguruan, emakumeen % 40k ur bila joan behar izaten du.

Babeserako eskubidea

Osasun-azpiegiturak ez izateak eta inguru gatazkatsuetan ur bila joateko distantzia handiak egin behar izateak arriskuan jartzen ditu emakumeen eta haurren eskubideak, eta eskubide horiek hautsi egiten dira askotan. Zenbait herrialdek ezin dituzte beren herritarrak modu egokian babestu, baina nazioarteko hitzarmenek gai honen inguruko bide-orria zehaztuta dute.

Kasu-azterketa. Tami: ura eta bioaniztasuna berreskuratzea³⁰

Salletar anaiek Togoko Tami herrixkan eraikitako presa txikien sistemari esker, animaliak eta landareak eskualdera itzuli dira. Gaur egun, inguru hartan lehortearen ondorioz aspaldian ikusten ez ziren hegaztiak itzuli dira. Gainera, nekazaritzari dagokionez, ura biltzeko sistemari esker, sasoi lehorrean ur-erreserba nahikoarekin iristen dira, eta landutako lurretako ekoizpenari eutsi ahal izaten diote.

Presak egiteko ekarpena eta ezagutza teknikoa bezain garrantzitsua da proiektuaren atzean dagoen filosofia. Gauzak poliki-poliki egitearen filosofia da, tokikoek identifikatutako beharren arabera. Bereganatutako esperientzian oinarrituta garatzen da lana, eta egiazko ezagutzatik sortutako interesa bultzatzen da. Azpiegitura handi bat egiten bada, baina bertakoek horren beharrik ikusten ez badute edo hori erabiltzen ez badakite, porrot egingo du. Aurrera egin aurretik, beharrezkoa da oinarri bat izatea, egiteko modu bat ikastea. Hazkundera horrek gizarteko alde guztiak inplikatzeko, eta horren ikusgarria ez izan arren, oinarri sendoagoak izango ditu puntualki gerta daitezkeen gorabeheren aurrean; izan ere, azpiegituraren gaintetik ezagutza dago, azpiegitura horretara iristeko eta berori erabiltzeko ezaguera.

30 TXOSTENA ETA BLOGA:

<https://docs.google.com/a/ucm.es/file/d/0ByJ2iHex0ld9YmhKNUg1bzZDZmM/edit?pli=1>
<http://acontratorrent.blogspot.com.es/search/label/togo>

Ignasi Oliverasek hegaztien bioaniztasunari buruzko azterlan zorrotz bat egin zuen 2013an, Tamiko Centre de Formation Rural zentroan egon zenean; azterketa horrek 120 hegazti inguru identifikatu zituen 96 hektareako lurralde batean, eta inguru horretako giroa nahiko lehorra dela kontuan hartuta, azpimarragarria da hori. Egoera hori, hein handi batean, bost presa txikiak egitearen ondorio dela adierazi du azterlanean, giroa hezetu egin delako, eta ingurumena aberastu.

2. LURRAK GUTXI BATZUEN ESKUETAN METATZEA, ERAUZKETA-LANAK, NEKAZARITZA ETA BIOANIZTASUNA

“Eskalako ekonomiek, bereziki nekazaritzaren sektorean, lurra saltzera edo labore tradizionalak baztertzeraz behartzen dituzte nekazari txikiak. Zenbait nekazari ekoizpen-modu dibertsifikatuagoetara jotzen saiatzen dira, baina alferrikako ahaleginak izaten dira, zailtasunak izaten dituztelako eskualdeko merkatuekin eta merkatu globalekin lotzeko, eta salmentarako eta garraiorako azpiegiturak enpresa handien zerbitzura daudelako”

Laudato Si’ Entziklika

Sarrera:

Lurren lapurreta errealitate tristea da segurtasun juridiko ahula duten herrialdeetan. Afrika, Asia eta Latinoamerikako zenbait eskualde milioika pertsonaren etorkizuneko baliabideak merke-merke irensten ari den pandemia izugarri hori pairatzen ari dira. Ahulenez nozitzen dute gehien egoera hori: haurdun dauden emakumeek, adingabeek, gaixoek eta adineko gizon-emakumeek nahitaezko tokialdaketari, beren ingurumenaren suntsiketari eta monolaborantza mekanizatuen ondoriozko lan faltari egin behar diote aurre. Gainera, landa-komunitateek ez dute baliabide eta ezagutza nahikorik izaten lapurreta hori ahalbidetzen duten arautegiak ezagutzeko. Bestalde, ez dute ezta ere denborarik eta baliabiderik egitura burokratikoari aurre egiteko. Azkenean, beren lurretatik alde egin behar izaten dute, eta Afrika kasu paradigmaticoa da gai honetan. Egoera horren arduradunak arduragabekeriaz jokatzeko duten enpresen produktuak kontsumitzen ditugunok gara; enpresa horiek sorgorrak dira, egiturazko ahultasun-egoerez baliatzen dira, eta gobernu ustekak behin-behineko diru-sarrerei lehentasuna ematen diete, biztanleen beharren eta osasunaren aurretik.

Lurra gutxi batzuen eskuetan metatzearen arrazoiak eta ondorioak

Lurra metatzea lur-hedadura handiak giza eskubideak hausten dituzten baldintza ilunetan erostea da³¹.

Bankuak, enpresa handiak eta inbertsio-funts pribatuak herrialde pobretuen egoera ahulaz baliatzen dira egunero milaka hektarea emankor erosteko³². Errentagarritasun handiko negozioa da, eta inork ez du pentsatzen lur horietan bizi direnentzat dituen ondorioetan. Erosten diren

31 Oxfam 2012 “NUESTRA TIERRA, NUESTRAS VIDAS” Tiempo muerto para la compra masiva de tierras. https://www.oxfam.org/sites/www.oxfam.org/files/file_attachments/bn-land-lives-freeze-041012-es_1_3.pdf p.5

32 GRAIN (2012) ¿Quiénes están detrás del acaparamiento de tierras? Una mirada a algunas de las personas que buscan llevar a cabo los grandes acaparamientos de tierras agrícolas a nivel mundial. https://www.grain.org/es/article/entries/4636-quienes-están-detrás-del-acaparamiento-de-tierras?_preview=1

lurrek baliabide ugari dituzte, baina han bizi diren biztanleek ez dituzte baliabide horiek asko ustiatu. Meategietako baliabideak ustiatzeko eta erregaiak ekoizteko laboreak ezartzeko nahiz, hein txikiagoan, animaliak hazteko eta giza kontsumorako elikagaiak ekoizteko eskuratzen dituzte lurak enpresa handiek.

Enpresa horiek eskuratutako lurretan bizi diren nekazariak lur haietatik bota dituen enpresarentzat lan egiteko aukera dute, baina soldatak ez dira duinak izaten eta, askotan, ez dituzte gutxieneko lan-eskubideak errespetatzen; erregimen feudalararen antzeko zerbait dela esan daiteke. Hala ere, gehienetan ez da halakorik gertatzen, monolaborantza estentsibo handiak teknifikazio-maila handia baitute, eta eskulan gutxi eta oso espezializatua behar izaten dute (landa-inguruan halako gutxi dago). **2007. urtetik 2012. urtera, lurren metaketa hamar milioi hektareakoa izan da urtero.** Beraz, milioika pertsonak galtzen du urtero bizirik irauteko aukera ematen dieten baliabideak tradizionalki erabiltzeko aukera³³.

Herrialde pobretuek, beren herritarrei lurak kentzeaz gain, ingurumenari buruzko legedia sendorik ez dutenez, material industrial zaharkituak hartzen dituzte. Material horiek oso kutsagarriak dira, eta arriskutsuak dira langileentzat eta herrialde horietan bizi den jendearentzat.

Gure arreta erakartzen duten datuak. Afrikaren kasu paradigmaticoa

Afrikan, 10.000 hektarea baino gehiago erosten badira, batez beste, 5.000 familiak erosketa horren eraginak pairatzen dituzte. **Gaur egun, 72 milioi hektarea baino gehiago metatu dituzte enpresek, eta kopuru hori handitzen ari da unez unez.** Saharaz hegoaldeko lerroa da Afrikan gutizia gehien sortzen duen inguruetako bat, oso emankorra delako eta baliabide ugari dituelako; eta apur bat hegoalderago kokatutako lurak ere interesatzen zaizkie, meatzeak daudelako. Afrikako erdialdea ere arriskuan dago.

Azken hamarkadan, Afrikan esku gutxi batzuetan metatutako lurren kopurua Kenyako lurraldearen azaleraren adinakoa da³⁴. Ahultasun instituzionalaren, juridikoaren, politikoaren eta ekonomikoaren ondorioz, Afrika izan da azken hamarkadan lurak masiboki erostearen ondoriozko kalte gehien jasan dituen kontinentea³⁵.

Lurak metatzeko prozesuak hainbat ezaugarri ditu indarkeriaren erabilerrari dagokionez. Enpresak eskualdeko buruzagiekin hitzartzen du lur-hedadura handi bat erostea, eta segurtasun-indar pribatuak edo armada, estatuak aginduta, arduratuko da jendea lur haietatik botatzeaz. Legezko prozedura horiek guztiak lurraren jabetzaren erregistroari buruzko araudietan oinarritzen dira. Teorian, nekazariak hiriburura joan beharko lukete belaunaldi askotan beren familiek landu dituzten lurren gain dituzten eskubideak izapidetzera, burokrazia-sistema konplexu baten bidez. Horrelako izapideek (ohiturekin eta erabilerekin lotutako ohiturazko zuzenbide tradizionaletik zuzenbide konbentzionalera igarotzea) gizarteko desorekak islatzen dituzte, lurraren egiazko jabeen lurra lapurtzeko sortutako sistema horrek legea erabiltzen du zeregin horretarako, eta ez arrazoia, justizia edo Nazio Batuen Erakundeko printzipioak edo giza eskubideak. Izapide horiek egin ahal izateko, hainbat gaitasun eskatzen zaizkio pertsonari eta, oro har, nekazariak edo hainbat seme-alaba dituen emakumeak ez dituzte baldintza horiek betetzen. (Bideoa³⁶).

Kontinente afrikarrean, pertsonen % 80 landa-izaerako familia-nekazaritzatik bizi dira³⁷.

33 Cip-ECOSOCIAL (2012). Acaparamiento de tierras, el nuevo expolio p. 10.

34 Oxfam 2012 "NUESTRA TIERRA, NUESTRAS VIDAS" Tiempo muerto para la compra masiva de tierras.

35 Ibíd. p. 2.

36 Detener el acaparamiento de tierras por la vida, la tierra y la justicia en Uganda. <https://www.youtube.com/watch?v=fN9YN8c3B9o>

37 Ekologistak Martxan (2012). Acaparamiento de tierras. <http://www.ecologistasenaccion.org/article23619.html>

Herrialde okupatzaileak, herrialde okupatuak eta nazioarteko erakundeak

- **Hauek dira lur gehien metatu dituzten herrialdeak:** Txina, India, Saudi Arabia, Arabiar Emirri Batuak, Qatar, Hego Korea, AEB eta Brasil³⁸.
- **Europako kontinentean,** hauek: Erresuma Batua, Alemania, Italia, Frantzia, Norvegia eta Espainia.
- **Hauek dira lur-okupazio handiena jasan duten Afrikako herrialdeak:** Kenya, Etiopia, Mozambique, Ghana eta Uganda.

Azken hamarkadan, 200 milioi hektarea inguru okupatu dira. Hau da, futbol-zelai baten azalera segundo bakoitzeko³⁹.

Erakundeei dagokienez, hainbat plataformatatik egindako presioen ondorioz, Munduko Bankua lur-metaketak eragin duen arazoan esku hartzen hasi zen 2012. urtearen erdialdean⁴⁰. Aurre-rapen handia izan da hori, 2007-2008. urteetako elikadura-krisian, Munduko Bankua izan baitzen herrien elikadura-subiranotasuna nazioarteko merkatuen eta atzerriko inbertitzaileen esku uztearen bultzatzaile nagusia, tokiko autohornikuntzarako proiektuak kritikatu⁴¹. Amore eman zuten herrialdeetan presio horiek izandako ondorioak oso ezagunak dira.

Bestalde, paradoxikoki, gaur egun inoiz baino elikagai gehiago ekoizten dira (FAOren arabera, 12 mila milioi pertsona inguru hornitzeko adina, eta guztira 7 mila milioi gara), eta, bitxia bada ere, inoiz baino pertsona gehiagok jasaten dute elikadura-urritasuna. Gosea sistemikoa bihurtu da, gizadiaren historian lehen aldiz.

Aurreko kanpaina gogora ekarrita “**Janaria ez da bota behar**”, egoera zeinen larria den ikusiko dugu; izan ere, FAOren arabera, ekoizten ditugun elikagaien heren bat baino gehiago kontsumitu gabe botatzen dugu⁴².

Elikadura-subiranotasuna, monolaborantza eta eragin ekologikoa:

Munduko herrialde guztiek egin behar dute borroka elikadura-subiranotasunaren alde. Elikadura-subiranotasuna herrialde bakoitzak nekazaritzako, abeltzaintzako eta elikadurako politika propioak definitzeko eta kudeatzeko duen eskubidea da, bai eta kanpotik datozenen aurrean tokiko produktuak babestekoa ere, kanpokoek tokiko merkatua eta ekoizpen-ekonomia desegonkortzen baitute. Beraz, bere buruarentzat aski izango den ekonomia bat zer neurritan izan nahi duten erabakitzeko eskubidea da.

Lurrak gutxi batzuen eskuetan metatzearen ondorioek pertsonei eragiten diete, eta, bereziki eta bortizki, ingurumenari. Ez dugu ahaztu behar monolaborantza estentsiboek zer kalte ekologiko sortzen dituzten: bioaniztasuna eta antzinako haziak galtzen dira, hegazkin arinekin botatako pestizidek laboreak kutsatzen dituzte, ibaiak desbideratzen dira, akuiferoak agortzen eta kutsa-tzen dira... Bioaniztasunaren galera da pobreziaren eragile nagusietako bat landa-inguruan. Nazio-mailan, esportaziora zuzendutako eta balio erantsirik ez duten produktuetan espeziali-

38 Ecologistas en Acción (2012). Acaparamiento de tierras.

39 Oxfam. (2012). CRECE. Pide al Banco Mundial que detenga el acaparamiento de tierras <http://www.oxfamintermon.org/es/campanas/proyectos/crece-pide-al-banco-mundial-que-detenga-acaparamiento-de-tierras>

40 Oxfam. (2012). CRECE. Pide al Banco Mundial que detenga el acaparamiento de tierras.

41 Grain. ¿Quiénes están detrás del acaparamiento de tierras? / Banco Mundial https://www.grain.org/es/article/entries/4636-quienes-estan-detras-del-acaparamiento-de-tierras?_preview=1#l

42 Esther Vivas. Blog. ¿La agricultura campesina y ecológica puede alimentar al mundo? <http://esthervivas.com/2014/05/20/la-agricultura-campesina-y-ecologica-puede-alimentar-al-mundo/>

zatutako herrialde bat zama handia bihurtzen da inportazioen ondorioz balantza ekonomikoa desorekatzen denean.

Periferiako **lursail handiak pribatizatzeak gizartean** ere eragiten du:

1. Ohiko igarobideak eten egiten dira.
2. Monolaborantzetatik hurbil bizi arren beren laborantza tradizionaleri eutsi nahi dieten nekazariak bakartu eta baztertu egiten dituzte.
3. Hainbat baliabide eskuratzeko aukera mugatzen dute: ura, basoak, herri-lurrak, gurtzarako guneak.
4. Jakintza tradizionalak eta lurraldearekiko identifikazioa galtzen dira poliki-poliki.

Nekazaritzan oinarritutako ekonomia, lurrak eta bioaniztasuna galtzeak elikadura-subiranotasunaren gaineko kontrola eta eskubidea galtzea dakar zuzenean. Eta aldarrikapen hau ez dagokie goizetik gauera guzti-guztia galtzen duten familia gutxi batzuei soilik. Tradizioan oinarritutako lurrraren jabetza eta elikadura-subiranotasuna babestea planeta osoarentzat da onuragarria. Izan ere, munduko lur emankorren % 30ek, nekazari txikiek lantzen dutenek, janariaren % 65 sortzen du. Eta lur hori aberatsagoa, nutritiboagoa eta osasungarriagoa da⁴³. Nekazaritzako elikagaien industriak lurrak irensten ditu, baina ez du plan argirik pertsonak lurreko produktuekin elikatzeke; bai, ordea, aziendak eta hegaztiak elikatzeke, eta, batez ere, ibilgailuak elikatzeke, erregaiak ekoizteko laboreen bitartez. Ondo ezagutzen ditugu eredu horren ondorioak urari eta Lurraren berotzeari dagokienez.

Bada Afrikak subiranotasuna galtzeko beste arrazoi bat: tokiko merkatuak Iparraldeko ekonomia babestuetatik iritsitako produktuekin bete izana. Sinestezina da ondo landutako produktu bat, osasun-berme guztiak dituen, Iparraldeko soldatekin egin dena eta Afrikaraino eraman dena, tokiko produktu bat baino merkeagoa izatea. Badu azalpena: herrialde aberatsetako gobernuek edo erakundeek diruz laguntzen dituzte zenbait produktu, merkatu jakin batzuetara bideratzeko; **konkurrentzia bidegabea** deritzo horri.

Afrikaren kasuan, zehazki, Munduko Bankuak eta Nazioarteko Diru Funtsak herrialde horiek beren merkatuak kanpora irekitzera behartu zituzten laurogeiko hamarkadaren erdialdean, zorra ordaintzeko baldintza moduan, eta horrek barneko merkatuak suntsitu zituen. Tokiko nekazaritzak ezin izan zuen Europako produktuen kalitatearekin, prezioarekin eta ospearekin lehiatu, eta kalte handiak jasan zituen. Hori izan zen, hain zuzen ere, lur-metaketaen lehenengo olatua. Prozesu horri **dumping** deritzo.

Nekazaritzako elikagaien sektorea oso garrantzitsua da gizarte-mailan, familien egiturazko antolamenduari hainbat mailatan eragiten baitio. Neoliberalismoak sektore horretan izan dituen ondorioen artean, lurrak gutxi batzuen eskuetan metatzeaz gain, tokiko nekazarien gain hazi transgenikoak landa ditzaten egin den presioa aipatu behar da, lehiakorrak izan daitezten. Mendekotasun ekonomikoa ekarri du horrek, nekazariak haziak, ongarriak eta pestizidak erosi behar izaten baitituzte denboraldi bakoitzean. Horren ondorioz, nekazariak zorpetu egiten dira, eta haien familiek ez dute oinarritzko zerbitzuak erabiltzeko aukerarik izaten, osasunaren eta hezkuntzaren arloetan, adibidez.

Bioaniztasuna suntsitzen ari gara, eta horrek gosea areagotzen du eta elikadura-urritasuna, segregazioa eta desoreka sortzen ditu. Hondamendia da hori familia-nekazaritza elikaduraren % 80aren iturri den kontinente batean.

43 La Vanguardia. La contra. *Los pequeños campesinos refrescarían el planeta*. <http://www.lavanguardia.com/lacontra/20130123/54362244076/la-contra-henk-hobbelink.html>

HAURREN ESKUBIDEAK, LURRAK GUTXI BATZUEN ESKUETAN METATZEA ETA ELIKADURA-SUBIRANOTASUNA SUNTSITZEA

Elikadurarako eskubidea:

Hau da gehien hausten den eskubideetako bat. Landatzeko lurren galerak, bai eta bioaniztasunaren murrizketa esanguratsuak ere, gosete larriak eragiten dituzte, nagusiki emakumeen eta haurren kasuan. Guatemalan dugu horren adibide argi bat, Polochic haranean, hain zuzen⁴⁴. 2011ko kaleratzeen ondoren, 10 adingabetik 6k elikadura-urritasun kronikoa jasan dute.

Bizitzeko eskubidea:

Lurren metaketak nahiz bioaniztasunaren galerak eskubide hau oztopatzen dute, eta milioika pertsonak beren herrialdearen barnean lekualdatu behar izaten dute.

Hezkuntzarako eskubidea:

Herrixketako azpiegiturak suntsitzean, familiek eta elkarteek bizitokia eta etxea utzi eta beste toki batzuetara alde egin behar izaten dute; ezagutzen ez dituzten hirietara alde egin behar izaten dute askotan, eta horrek guztiak eragin handia du haurren formazioan.

Horrez gain, lekualdatuek jasotzen duten heziketak ez ditu gordetzen jakintza tradizionalak; horren ondorioz, gure planetako aniztasun kulturala galtzen ari da⁴⁵.

Nekazarien eta industriaren eredu bateratuaren ezarpenak milaka nekazariren zorpetzea ekarri du, eta nekazari horien seme-alaben hezkuntzarako eskubidea murriztu du horrek.

Osasunerako eskubidea:

Bizitokia eta bizimodua bortizki eta bat-batean aldatzeak suposatzen duen shockaz gain, gatazka psikologikoak ere sortzen dira, eta osasunean eragiten du horrek. Ikuspegi kulturaletik, ezin dugu ahaztu landa-komunitateek lotura estua dutela lurraekin. Norberaren eta familiaren nortasuna lurrari lotzen zaio baita ere. Pertsona bat bere lurretik bortizkeriaz bereiztea pertsona hori gosetera eta pobrezia kondematzea da, eta nahasmendu psikosozial larriak sortuko dizkio egoera horrek.

Gainera, elikagai falta etengabeak kalte larriak eragiten dizkie adingabeen garapenari, haurdun dauden emakumeei eta gaixoei.

Ura izateko eskubidea:

Eskualde batean, lurra esku gutxi batzuetan metatzen badira eta monolaborantzak ezartzen badira, ura eskuratzeko eskubidea galduko dute bertakoek. Gainera, lur horietatik alde egiten dutenek lurralde lehorragoetara joan behar izaten dute, lur haiek baitira, ur gutxi dutelako, hain zuzen ere, libre gelditzen diren bakarrak. Ura funtsezkoa da adingabeak osasuntsu hazteko. Deshidratazioak ondorio atzeraezinak izan ditzake adingabeen garapen fisikoan eta mentalean. Haurtxoek eta neska-mutikoek behar gehiago dituzte, eta helduak baino ahulagoak dira. Horregatik, kutsatutako ura edateagatik sortutako gaixotasunek oso ondorio larriak dituzte txikienen osasunean. Izan ere, edateko ona den urik eta saneamendu-instalazio egokirik ez izatea da 5 urtetik beherako haurren heriotzaren arrazoi nagusietako bat garatzen ari diren herrialdeetan.

Nortasunerako eskubidea:

44 Oxfam. 6 de cada 10 niñas y niños de las familias desalojadas del Valle del Polochic (Guatemala) sufren desnutrición crónica <http://www.oxfamintermon.org/es/campanas/proyectos/polochic-firma-ahora-por-desalojos>

45 Cip-Ecosocial Acaparamiento de tierras, el nuevo expolio p. 17

Bazterketa-egoerak nahasmendu-sentimendua sortzen die hurrei, eta nortasuna modu egokian eratzea eragozten du horrek. Azkenean, ez dira kanporatuak izan diren lurraldekoak, ez eta hartu dituen lurralde berrikoak ere. Horrelako egoerek etnien arteko desberdintasunak biziagotzen dituzte, eta muturreko jarrerak areagotzen. Nahasmenduak erantzun aurreranezina sortzen ditu gazteengan.

Askatasunerako eskubidea:

Haurra eta haurraren familia beti bizi izan diren lurretik kanporatzen dituztenean eta bizibidea ateratzeko beste modu bat bilatu behar dutenean zapuzten da eskubide hau.

Babeserako eskubidea

Babes falta erabatekoa da. Bere herrialdean bertan, haurrak iheslari bihurtuko dira. Haien bizikaltateak okerrera egingo du, eta beretarrek eman diezaioketen babesa ere murriztuko da.

ZER EGIN DEZAKEGU?

Maila pertsonalean egin dezakegun indarra

1. Kontsumitzen ditugun produktuen jatorriari eta ekoizpen-moduari buruzko informazioa lortu.
2. Gure kontsumo-ohituren ondorioez kontzientzia hartu.
3. Gure jokabidea zalantzan jarriko duen espiritu kritikoa elikatu.
4. Gure kontsumo-ohiturak aldatu, ekonomia konbentzionala zalantzan jarri.
5. Kontsumorako produktu eta finantza-produktu alternatiboak bilatu.
6. Teknologia berriak erabili estrategiak eta ekintzarako eta jarraipenerako erremintak presartzeko (adibidez, #Poletika plataformaren bidez hauteskundeetan egindako aginduen jarraipena egin dezakegu, eta, agindu horiek betetzen ez direnean, antolatu egin gaitzke).
7. Banaka edo taldeka, kontsumo-kooperatibetan parte hartu.

Taldean egin dezakegun indarra

1. GKEei lagundu, boluntariotzaren bidez edo ekarpen ekonomikoak eginez.
2. Azken hamarkadetan lur-metaketa eta bioaniztasuna suntsitzearen kontra borroka egiten ari diren hainbat gizarte-mugimenduren ekintzei babesa eman: Vía Campesina, Greenpeace, Oxfam, FAO...
3. Munduan hezkuntza hedatzeko lanean ari diren GGKEei lagundu (klaretarrak, maristak edo salletarrak), hezkuntzaren indarrak bizitzako maila guztietan eragiten baitu eta justizia soziala eraikitzeko lagungarria baita.
4. Estatuak eta enpresak hertsatu, giza eskubideen arloan nazioarteko hitzarmenak betearazteko.
5. Enpresei eta agintariei kontuak eskatu, sendotasunez eta irmotasunez. Giza eskubideen hitzarmen guztietan aipatzen da tresna hori.

Teknologia berriak erabili estrategiak eta ekintzarako eta jarraipenerako erremintak presartzeko (adibidez, #Poletika plataformaren bidez hauteskundeetan egindako aginduen jarraipena egin dezakegu, eta, agindu horiek betetzen ez direnean, antolatu egin gaitzke).

Aurreko puntu horiek praktikan jartzen baditugu, gure gizarte global honen norabidea zehaztuko dugu.

Zer ikus dezakegu?

- Together we can cool the planet! / Elkarrekin planeta hoztu dezakegu!
- <https://vimeo.com/140427376> Graing eta Via Campesina

3. MANUFAKTURAK

Sarrera

“Gizakia bizitza ekonomiko eta sozialaren egilea, erdigunea eta xedea dela esaten dugu. Hala ere, gizakiarengan behatzeko eta errespetatzeko gaitasuna kaltetzen denean, lanaren zentzua desitxuratzeko baldintzak sortzen dira. Komeni da gogoratzea gizakia gai dela berez materialki hobetzeko eta aurrerapen morala eta garapen espirituala lortzeko ardura bere gain hartzeko. Lanak izan behar luke garapen pertsonal zabal horren esparrua, alderdi guztiak garatzeko esparrua.

Laudato Si’ Entziklika

Ondasunen produkzio-prozesuko fase bat da manufaktura, non lehengaiak, langileen interakzioaren bidez, produktu landu bihurtuko diren. Bigarren sektorearen barnean kokatzen dira manufaktura-enpresak, eta, esparru horretan, ehungintza eta elikagaigintza nabarmentzen dira fabriken arloan. Milaka kilometro dituen kate baten bidez garatu diren ehunka produktu erabiltzen ditugu egunero. Manufaktura, elikagaien antzera, ondasun bihurtu dira, eta mundu erdian barrena garraiatu behar dira ondasun horiek. Teoria ekonomikoak dio onurak lortuko dituztela “garatze-bidean” diren herrialdeek manufaktura-lanetatik eta zuzeneko atzerriko inbertsioen bidez, tokiko industria modernizatzen den eta tokiko langileek biharko egunean beren enpresak ezartzeko ezaguera teknikoak barneratzen dituzten bitartean. Bat dator hori errealitatearekin?

Egia esateko, manufaktura-ekoizpen-enpresak herrialde pobretuetan, ia lan-araudirik ez dutenetan edo oso araudi laxoak dituztenetan, finkatu nahi izaten dute. Mugimendu horiek helburu zehatz bat dute: enpresen kostuak ahalik eta gehien murriztea, lehiakorrak izateko. Dinamika neoliberalen emaitza da hori, lehiakortasuna maximizatzea lortu nahi baitute beren sektorean. Zoritxarrez, ezin dugu sektore honetaz hitz egin, langileen lan-baldintzei eta, batik bat, haurrenei erreparatu gabe, haurrak oso estimatuak baitira lan horietarako, beren abileziagatik eta oso “esaneakoak” direlako. Lehiakortasuna maximizatze horren oinarrian, langileei ezartzen zaizkien lan-baldintza lazarriak ditugu. Haurren esplotazioaz ari garenean, kontuan izan behar dugu 168 milioi haur bizi direla egoera horretan.

Haurren esplotazioaren arrazoiak

Haurren lan-esplotazioaren arrazoiak aztertzerakoan, familien egonkortasun eza azpimarratu behar da, bai eta haurren zaugarritasuna ere; izan ere, zaugarriagoak direnez, helduak baino errazago kontrola daitezke haurrak. Horrelako lanetarako erabiltzeko arrisku handiagoa dute mendeko etnia eta gizarte-taldeetako haurrek (pentsatu, adibidez, Indiako kasta-sisteman). Ho-

rrez gain, haurrei gutxiago ordaintzen zaie egiten duten ahaleginaren truke, eta horrek murriztu egiten ditu fabrikazio-kostuak azkenean; murrizketa horrek onurak dakarzkie tokiko enpresari, tarteko enpresei, banaketa-enpresei eta azken kontsumitzaileei (gu geu izan gaitzke). Hori nahi dugu?

Monolaborantzako lursailetan aurkituko dugu horren adibide bat. Egunsentitik gauera arte soldata eskas baten truke atsedunik gabe lan egiten duten jornalero askori beren seme-alabek ikastea gustatuko litzaieke, baina ezinezkoa zaie. Seme-alabei ikasteko aukerarik ezin eman izateaz gain, familiak bizirik irauteko, ezinbestekoa dute ahalik eta familiako kide gehienek lan egitea. Guatemalan, esaterako, horren adibide argiak ikus ditzakegu. Azukre-kanaberak biltzeko unea iristean, aitak eta haren bi semek lan eginda ere, ez dira pertsona bati dagokion gutxieneko soldatara iristen⁴⁶. Horra hor zer den neo-esklabotza.

Haurren lan-motak manufakturen sektorean

Lanaren Nazioarteko Erakundeak dioenez (OIT), 168 milioi haur bizi dira gaur egun lan-egoeran, nahiz eta azken hamarkadan heren bat gutxiago diren egoera horretan daudenak. Horietatik erdiak baino gehiagok, 85 milioik, lan arriskutsuak egiten dituzte.⁴⁷

Haurren lana eskualdez eskualde; haur langile horien banaketa honako hauxe da:

- **Asia eta Ozeano Barea:** 78 milioi
- **Saharaz hegoaldeko Afrikako herrialdeak:** 59 milioi
- **Latinoamerika eta Karibe:** 13 milioi
- **Ekialde Ertaina eta Ipar Afrika:** 9,2 milioi

Haurren lanaren kasuistika aztertu du OITk, haurrek eta gazteek beren egoera hobetzeko lan egiten dutenean zer egoera har daitezkeen onargarritzat aztertzeko. Baina horrelako egoerak oso urrun daude errealitatetik. Herrialdeen artean haurren lana nola banatzen den ikusita, oso eredu argia bistaratuko zaigu: araudi politiko, juridiko eta ekonomiko ahuleko egoerak dira.

Sektorez sektore ikusten badugu, horrela banatzen da **haurren lana: nekazaritza** (98 milioi haur), **zerbitzuak** (54 milioi haur), eta **industria** (12 milioi haur). Nekazaritzaren sektorean nahiz industria-sektorean –batez ere azken horretan– aurkituko ditugu **manufaktura-prozesuak**.

Haurren lan arriskutsua⁴⁸

Gaur egun horrelako egoera batean **85 milioi haur** daudela jotzen da. **Langileen osasunari kalte egin diezaioketen** zereginekin lotutako lanak dira lan arriskutsuak. Oso egoera latza da haur-errentzat, oraindik erabat garatu gabeko pertsonak diren neurrian, gaixotasun kronikoak eragin baititzake horrek. OITren kalkuluen arabera, **22.000 haur inguru hiltzen dira urtean** lan arriskutsuen ondorioz⁴⁹.

46 PLAZA PÚBLICA. Periodismo de profundidad. <http://www.plazapublica.com.gt/content/trabajo-infantil-y-explotacion-laboral-en-el-azucar-de-guatemala>

47 OIT. Haurren lana. Datuak eta kopuruak.

48 OIT. Trabajo Infantil peligroso <http://www.ilo.org/ipecc/facts/WorstFormsofChildLabour/Hazardouschildlabour/lang--es/index.htm>

49 Ibid.

Haurren esklabo-lana⁵⁰

Produkzio-prozesuan izan den deslokalizazioak erlazio-kate bat sortzen du ekoizleen artean, eta ezinezkoa da kate hori kontrolatzea. Nekazariarengandik hasi eta produktua kontsumitzailearen eskuetara iritsi arte, lehengaia dozenaka eskutatik pasa daiteke, lehengai hori eraldatuz doan heinean. Prozesua zenbat eta luzeagoa, orduan eta kontrolagaitzagoa izango da, eta, beraz, arrisku handiagoa egongo da lan-arloan inolako ardurarik erakusten ez duten jokabideak haritzeko⁵¹. **Esklabo-lanaren arazo nagusia ezkutuko lana eta nekez zenbat daitekeena izatea da.** Esklabo lana indarrez behartuta eginarazten den lana izan daiteke, pertsonak beren borondatearen aurka atxikita daudenean; edota inguruabarrek behartutako lana ere izan daiteke. Egoera politikoak eta ekonomikoak edota lan-egoerak nabarmen okerrera egiten duenean ere lan-mota horretaz ari gara, langileak ez baitu bere askatasunak besterendu beste aukerarik izango. **Horrelako lan-motetan, ez dira gutxienekoak ere betetzen.** Horrelakoetan, haurrak giltzapean egoten dira, fabriketan bizi dira, eta ez zaie fabriketatik irteten uzten; lanaldi luzeak egin behar izaten dituzte, egunsentira arte; **eta jo, iraindu, bortxatu edota hil egiten dituzte.**

Morrontza-lanak

Esplotazio-egoera hau langilea, zor bat ordainarazteko, bere lan-indarra saltzera behartzen dutenean gertatzen da, baina bidezkoa den lan-harreman batean ordainduko litzaiokeena baino askoz prezio txikiagoa ordaintzen zaio. Gainera, behartze horretan, indar handia dute engainuak eta pobrezia-egoeraz baliatzeak, eta mafien kutsua ere badute horrelako egoerek. 1999an, Nazio Batuen Erakundeak egindako azterketen arabera, munduan 20 milioi pertsona zeuden horrelako erregimen baten azpian.

Esplotazio-mota hori batez ere Asiako hego-ekialdean gertatzen da, lan-esplotazioaren esparruetan (manufakturak); haurren salerosketaren esparruan, Afrikan gertatzen da nagusiki; eta, Europan, sexu-esplotazioarekin lotzen da batik bat⁵².

Sexua, haurren lana areagotzen duen loteria

Lan egiten duten neskatoak 88 bat milioi izango direla jotzen da⁵³. Kopuru hori mutikoena baino handiagoa izateaz gain, gizarte-estereotipoen zama erantsi behar zaio egoera horri, larriagotu egiten baitu horrek. Gehienetan, oso lanaldi luzeak egiteaz gain (14 ordu inguru), etxeko zereginetara heldu behar izaten diete neskek. Zuzen-zuzenean eragiten dio horrek neska horien osasunari, eta, horretaz gain, ez daukate ikasteko denborarik ia, eskolara joateko zortea dutenen kasuan. Beren bizitzetan, etxe barruko lanak eta etxetik kanpo egiten dituztenak uztartu behar izaten dituzte.

Manufaktura-lanak haurrengan dituen ondorioak

Fabriketako bizimodua ez da haurrentzat, eta sistematikoki haur horien eskubideak urratzen direla adierazten du⁵⁴. Leku arriskutsuak dira, eta adingabeek gutxieneko segurtasun-baldintzarik gabe jardun behar izaten dute leku horietan. Gainera, lan-ordutegiak mugarik gabe luza daitezke eskariaren arabera, arautu gabe daudenez, eta horrek berak arreata galtzea eta lan-istripuak

50 Anti-Slavery. La esclavitud y lo que compramos. http://www.antislavery.org/spanish/esclavitud_moderna/la_esclavitud_y_lo_que_compramos.aspx

51 TVE. Documental Todo menos caro, Made in Asia. [40:38] <https://www.youtube.com/watch?v=c15PY5zx84M>

52 Anti-Slavery trabajo en condiciones de servidumbre. http://www.antislavery.org/spanish/esclavitud_moderna/trabajo_en_condiciones_de_servidumbre.aspx

53 SETEM (2010). Trabajando la infancia comercio justo y explotación infantil. http://www.setem.org/media/pdfs/SETEMCV_Trabajando_la_infancia_Guia_didactica_cas.pdf

54 Anti-Slavery. El trabajo Infantil http://www.antislavery.org/spanish/esclavitud_moderna/el_trabajo_infantil.aspx#donde

izateko arriskua areagotzea dakar; halaber, gaixotasunak izateko arriskua ere handitu egiten du horrek, eta kroniko bihur daitezke gaixotasun horiek⁵⁵. Enpresa horietan inolako araubiderik ez dagoenez eta laneko eskubideak urratzen direnez, ez zaie langileei bajarik onartzen, eta, askotan, kalera botatzen dituzte istripuren bat izan duten pertsonak, gaixo daudenak edota haurdun gelditzen direnak. Horri guztiari oso soldata txikien ordain irregularrak gaineratu behar zaizkio, edota nahiko ohikoak dira sexu-gehiegikerien kasuak ere, kalera botako dituztela mehatxu eginez egindakoak askotan. **Pertsona horiek izugarritzko presioa jasaten dute, beraz, eta izugarriak dira ondorioak: osasun-arazo kronikoak eta arazo psikosozialak; pertsona horien bizitza betiko baldintzatuko duten arazoak dira askotan**

HAURREN ESKUBIDEAK ETA MANUFATURAK

Bizitzeko eskubidea:

22.000 haur hiltzen dira urtero lan arriskutsuak egitearen ondorioz (OIT).

Lan arriskutsu horiek egiten dituzten haurrak pobreenak dira; hau da, bizirik irauteko egiten dituzte lan horiek. Txikienek bizitza sozialerako, bizitza fisikorako eta osasun psikologikorako duten eskubidea urratzen du horrek, eta, zalantzarik gabe, zuzenean eragiten dio horrek guztiak bizitzeko eskubideari.

Hezkuntzarako eskubidea:

Manufakturen arloari dagokionez, bi ikuspegitatik dago lotuta hezkuntza arazo honekin. Alde batetik, manufaktura-enpresetan lan egiten duten haurrek ez dute hezkuntza jasotzeko eskubiderik, eta pobrezia zirkuluan hondoratzen dira horrela. Eta, bestetik, manufaktura-enpresetan lan egiten duten haurrek ez dute hezkuntzarik⁵⁶. Neskatoen egoera are larriagoa da, patriarkatuaren kulturaren ondorioz, lantegiko lana eta etxeko lana uztartu behar izaten baitituzte.

Elikadurarako eskubidea:

Iraupen-soldatek desnutrizioa sortzen dute, bai langileengan eta bai haien familiengan. 2014ko urtarrilean, bost pertsona hil ziren Kanbodiako protesta-ekitaldi batean: manufakturen sektoreko lan-baldintzak salatzeko ari ziren protestan. Egin zituzten aldarrikapenen artean, elikagaien faltaren ingurukoa zen bat, gabezia horren ondorioz, nahiko ohikoak baitziren zorabioak langileen artean. Kanbodiako legediak zortzi orduko lanaldia arautzen du, astean sei egunerako, eta aparteko bi ordu gehiago sar daitezke egunean gehienez. Baina, osotara, ezin zira astean 60 ordu gainditu. Dena den, sindikatuek salatu dutenez, askotan langileek 80 ordu ere egiten dituzte astean, batez ere garatutako herrialdeetako kontsumo handieneko garaietan, Gabon aurreko asteetan, adibidez. Aparteko ordu horiei esker, langileek beren oinarrizko soldata hileko 78 eurotik 124ra igo dezakete, baina sindikatuek diote gutxieneko soldata izan behar lukeela kopuru horrek, 48 orduko lanaldiko astebeterako⁵⁷.

Osasunerako eskubidea:

Askotan, haurrek ezin izaten dute lanpostutik alde egin, eta askok gaixorik ere lan egin behar izaten dute. Bestalde, enpresa handiek langile adingabeen osasun-arazoei epe laburrean aurre egiteko baliabideak dituzte. Adingabeen etorkizuna arriskuan jartzen da horrela.

55 TVE. Dokumentala. Todo menos caro, Made in Asia. [17:35]

56 OIT. Laneko oinarrizko printzipio eta eskubideei buruzko adierazpena. http://www.ilo.org/wcmsp5/groups/public/--ed_norm/---declaration/documents/publication/wcms_decl_fs_83_es.pdf

57 El Diario.es [enero 2014] Desmayos, abusos y muertes: así se fabrica la ropa en Camboya http://www.eldiario.es/desalambre/Desmayos-abusos-muertes-fabrica-Camboya_0_304120404.html

Nortasunerako eskubidea:

Nortasuna garatzea ezinezkoa da gizartean eta ingurunean presio-larria bizi dugunean. Gainera, giltzapetuta egotean, talde horren ikusgarritasuna ezkutuan gelditzen da, inolako nortasunik gabe

Askatasunerako eskubidea:

Herrialde pobretu bateko sistema politiko eta ekonomikoak adingabeak esplotatzea onartzen duen unean bertan, desagertu egiten da pertsona horiek askatasunerako duten giza eskubidea. 168 milioi haur bizi dira egoera horretan.

Babeserako eskubidea

Askotan, manufaktura-azpikontratuek giza eskubide guztiak urratzen dituzte sistematikoki, estatuek ustez kontratu horiek gainbegiratu arren, arautegi laxoak izaten baitituzte lan-arloan. Lan-ikuskatzaileek nabarmendu dutenez, lan-aroko eskubideetan enpresa handiek ematen dituzten hezkuntza-programak ez dira errealitatean oinarritzen, edota, askotan, ez dute horrelako prestakuntzarik ematen⁵⁸.

NAZIOARTEKO LEGEDIA⁵⁹

Lehenengo, argi utzi behar dugu haurren lanak Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Erakundearen Konbentzioa urratzen duela. OIT erakundeak⁶⁰ onartzen du haurren lan batzuk onargarriak izan daitezkeela. Arriskuaren jasangarritasun-mugak zehaztu ditu, bai eta lan-motak, lana egiteko moduak eta baldintzak, lanerako denborak eta bizitzako beste arlo batzuekiko interferentzia ere. OITren arabera, gatibu-lana edo bortxazko lana "edozein zigorren mehatxupean norbaiti eginarazten zaion lan edo zerbitzu-mota oro da, pertsona horrek bere burua lan horretarako borondatez eskaini gabe"⁶¹.

HORRELAKO EGOEREN ADIERAZGARRI DIREN ZENBAIT ADIBIDE

1. Oinetakogintza:

Azpikontratazio famatua da XXI. mendeko koska nagusietako bat, eta horrekin borrokatu beharko dute giza eskubideen nazioarteko erakundeek, GKEek eta gizarte-mugimenduek. XX. mendean, azken kontsumitzaileak ez zeuden informatuta, eta aski zuten hori esklabotza-enpresek, horren atzean ezkutatzeko eta beren maukei eusteko. Baina, mende amaieran, hainbat eskandalu izan ziren oinetakogintzako enpresa handietan, Nike, Adidas, Reebok eta Puma etxeetan, esaterako, eta, lagungarri gertatu zen hori kontsumitzaileak ardurak eta erantzukizunak eskatzen hasi zitezen. Enpresa batzuk kausa berriarekin konpromisoa hartzen hasi baziren ere, beste batzuek azpikontratazioa jo zuten, hortxe aurkitu baitzuten aukera beren produkzio-kuotei eusteko, beren langileen askatasuna anakronikoki menderatuta, berriro ere. Zorionez, aldatzen hasi da egoera hori, horrelako egoerak salatzen dituzten erakundeen lanari esker eta, zoritxarrez, aireztapen txarreko tokietan makinak berotzeak eraginda hainbat erai-kin erori direlako.

58 TVE. Dokumentala. "Todo menos caro, Made in Asia". (30:42)

59 Anti-Slavery El trabajo Infantil: http://www.antislavery.org/spanish/esclavitud_moderna/el_trabajo_infantil.aspx#donde

60 OIT. Laneko oinarritzko printzipio eta eskubideei buruzko adierazpena: http://www.ilo.org/wcmsp5/groups/public/---ed_norm/---declaration/documents/publication/wcms_decl_fs_83_es.pdf

61 Anti-Slavery ZER DA GATIBU-LANA?: http://www.antislavery.org/spanish/esclavitud_moderna/en_qu_consiste_el_trabajo_forzoso.aspx

2. Ehungintza:

Ehungintzako manufakturetan, trabarik handiena zenbait gobernu eta lobby politikok egiten dutena da, inolako ardurarik gabe jokatzeko duten enpresen arrakasta ekonomikoa arrakasta nazionalaren ikur bihurtzen baitute maiz. Hona hemen zenbait datu: elikadurarako eskubideaz hitz egin dugunean lehen ere aipatu dugunez, bost langile hil zituzten tiroz Kanbodian, 2014ko urtarrilean, eta berrogei ospitalera eraman behar izan zituzten, lan-baldintza hobek eskatzen zituzten protesta-ekitaldi batean. Ehungintzako fabriketan, zorabioak nahiko arruntak zirela salatzen zuten, langileak oso gaizki elikatuta baitzeuden. Kasu zehatz horretan, **Levi's Strauss**, **H&M** eta beste enpresa batzuk ezkututzen dira lan-baldintza txar horien atzean. Datuak aztertu eta Kanbodiako esportazioen % 84 industria-mota horri dagokiola ikusi ondoren, ulertzen dugu giza eskubideak bete eta susta daitezkeen interes handiegirik ez izatea zenbaitzuek.

Bangladeshen, ehungintzako lantegi batean, 100 langile hil ziren erreta, segurtasun-neurrien faltagatik, 2012. urtean⁶² eta 1.138 pertsona hil ziren Rana Plazan handik urtebetera, eraikin bat goitik behera erori zelako⁶³, bi gertaera horien atzean, Espainiako **Inditex** multinazional-taldea, **Corte Inglés**, eta egoitza Espainian duen **Mango**, sozietate mugatua ditugu, bai eta atzerrikoak ere, hala nola **Wal-Mart**.

Azkenik, hitz egin dezagun India hegoaldean gatibu-lana sustatzen duten Espainiako hiru enpresari buruz: **Corte Inglés**, **Inditex** eta **Cortefiel**, dira, hango manufakturak erosiz lan egiten baitute⁶⁴. Tamil Nadu estatuan dauden lantegi horietan, neska nerabeak eta adingabeak erabiltzen dituzte lanerako, eta eguneko 0,88 euro-zentimoren truke egiten dute lan, astean 72 orduz, 3 urtetik 5 urtera bitartean, beren ezkonarirako aurrezteko xedez. Kasu horretan, Indiako beheereneko mailako kastako jendea erabiltzen dute.

ZER EGIN DEZAKEGU?

Ezer baino lehen, **informazioa eskuratu**. Gobernu kanpoko erakunde, gizarte-mugimendu eta nazioarteko erakunde askok denbora, baliabideak eta ahaleginak inbertitzen dituzte, manufakturen sektorean gertatzen diren giza eskubideen urratzeak salatzeko. Adibidez, hor dugu "Ropa Limpia" kanpaina, SETEM + No sandblasting⁶⁵, erakundeek bultzatutakoa, "Salarios dignos" kanpaina, etab.

Kasu honetan, gobernu kanpoko erakundeak eta nazioarteko erakundeak bat datoz **boikotik ez sustatzeko**⁶⁶ estrategian. Aitzitik, aldi berean Hegoaldetik eta Iparraldetik **presio politikorako neurriak** antolatu beharra dagoela planteatzen dute. Bestalde, elkartegintzatik eta presio politikotik harago jo nahi izanez gero, hor dugu **Bidezko Merkataritza**, gure eskura baitugu baliabide hori. Ehungintzaren sektorea hasi berria da arlo horretan, baina hainbat GGKE, Oxfam, adibidez, beren eskaintzak lantzen eta zabaltzen ahalegintzen dira urtez urte.

Kritikoak eta selektiboak izan behar dugu kontsumitzaile gisa, eta horrelako egoren berri eman eta salatu egin behar ditugu.

62 El mundo [2012]. Bangladesh: 'El incendio en la fábrica que dejó más de 100 muertos fue provocado' <http://www.elmundo.es/elmundo/2012/11/26/internacional/1353919055.html>

63 Campaña ropa limpia. 18 MESES TRAS RANA PLAZA: MEDIDAS PREVENTIVAS EN MARCHA PERO EL PAGO ÍNTEGRO DE INDEMNIZACIONES NO LLEGA. <http://www.ropalimpia.org/es/noticias/408/18-meses-tras-rana-plaza-medidas-preventivas-en-marcha-pero-el-pago-ntegro-de-indemnizaciones-no-llega>

64 El confidencial [2012]. Trabajo esclavo en la India: tres empresas españolas están incluidas en la 'lista negra' http://www.elconfidencial.com/espana/2012-03-23/trabajo-esclavo-en-la-india-tres-empresas-espanolas-estan-incluidas-en-la-lista-negra_234092/

65 Campaña No Sandblasting <http://www.nosandblasting.org/noticia.php?idn=7&idi=es>

66 Ropa limpia" kanpaina (Boikotak?): <http://www.ropalimpia.org/es/participa/310/qu-puedo-hacer-yo>

Azkenik, **gure denboraren edo baliabideen zati bat**, manufakturetako esplotazioen kontrako borrokan lan egiten duten GGKEei eskain diezaiekegu.

KASU-AZTERKETA: BURKINA FASO, EMAKUMEA ETAKAFREH⁶⁷

Nola alda dezakeen pobrezia-egoera manufaktura-lanak, nola susta ditzakeen kooperatibismoa eta sare sozialak, eta nola ahaldundu ditzakeen emakumeak⁶⁸.

Proiektu honek agerian jartzen du talentua duten pertsonak edonon daudela, eta, ezaguerak eta teknologia apur bat izanez gero, **kalitate handiko produktuak** egin daitezkeela, bereizgarri esanguratsua dutenak, beren originaltasunari esker. Horrez gain, kutsadura-egoera larriko **egoera bat leheneratzen laguntzeko** egokiak diren baliabideak erabiltzen ditu proiektuak. Burkina Fasok antolatutako berrikuntzarako eta mikroenpresei laguntzeko sariketaren hamargarren edizioa irabazi zutenean hasi zen proiektua. Sariarekin jasotako laguntza ekonomikoari esker, 50 urtetik gorako 14 emakume biltzen zituen talde bat zabor-poltsak biltzen eta horiekin ehuntzen hasi zen duela hamar urte. Gaur egun, 10 urte pasatu ondoren, **60 emakume baino gehiago** ari dira lanean enpresan, eta beste hainbat pertsona zabor-poltsak biltzeaz eta banatzeaz arduratzen dira. Biltzaile eta banatzaile horiek ere bazterketa-arriskua jasaten duten kideak dira.

Sareko babesa eta gizarteratzeko xedea izateaz gain, **ingurumena zaintzen du proiektuak**, eoso kutsatzaileak diren plastikozko poltsak biltzen baitituzte. Izan ere, Burkinan, **“plastikozko hondakinen izurria”**, dagoela esaten da, eta **herrialde horretako animalien heriotzen % 30 hondakin horiekin lotuta dago⁶⁹.**

Emakumeak ahaldunduzteari dagokionez, hainbat alderdiri erantzuten dio proiektuak: dituzten eskubideen berri ematen die, duintasunez bizi ahal izateko lanbide bat ematen die, alfabetatze-ikastaroak, sexu-osasuneko eta ugalketako ikastaroak eta amen eta haurren arteko harremanari buruzko ikastaroak ematen zaizkie.

Zer ikus dezakegu?

- “Todomenoscaro,madeinAsia” dokumentala:<https://www.youtube.com/watch?v=cl5PY5zx84M>
- Dark side of the chocolate <https://www.youtube.com/watch?v=7Vfbv6hNeng>

⁶⁷ <https://www.youtube.com/watch?v=u6sQRQloXIM>

⁶⁸ Gafreh en PROYDE

<http://www.proyde.org/index.php/inicio-menu/noticias-2/76-sensibilizacion-comercio-justo/1312-proyde-comercio-justo-potencia-el-comercio-justo-con-africa>

⁶⁹ Ibid.

4. HONDAKINEN HILERRIAK ETA AFRIKA. GURE TEKNOLOGIA-REN ESKELETOAK

“«Erabili eta bota» ohituraren logikak hondakin asko eta asko sortzen ditu, behar duguna baino gehiago kontsumitzeko nahiaren ondorioz. Ezin dugu pentsatu proiektu politikoak eta legearen indarra nahikoa izango direla ingurumenari eragiten dioten jokabideak saihesteko; izan ere, kultura bera galbideratzen denean eta egia objektiboak edo unibertsalki baliagarriak diren printzipioak aitortzen ez direnean, legeak ezarpen arbitrario hutsak eta saihestu beharreko oztopo baino ez dira izango.”

Laudato Si' Entziklika

Sarrera

Egunero, produktu teknologikoen milioika kilo hondakin sorten ditugu munduan. Produktu horien bizi-zikloa baliabideak ebasten eta metatzen diren unean hasten da, eta oso kutsatzaile den hondakin modura bukatzen dute ziklo hori, lehengaiak atera ziren tokitik geografikoki oso urrun ez dagoen herrialde batean. Ustiapena, metaketa eta desjabetzea daude abiapuntuan, beraz, eta kutsadura dator itzulerako bidean.

Nazio Batuen Erakundeko Unibertsitatearen txosten baten arabera **41,8 milioi kilo** inguru **zabor teknologiko** sortu genuen **2014. urtean**⁷⁰. **2010ean, 33,8 milioi kilo zabor** sortu genuen. Eta hondakin kopuru hori gero eta handiagoa da. **Urtero, bi milioi kilo inguru hazten da.** Gure planeta zabortegi bihurtzeko arriskua dugu.

Pertsona bakoitzari batez beste zenbat kilo zabor dagozkion kalkulatzeko badugu, eta denboran aurrera egin ahala zer bilakaera izan duen aztertzen badugu, oso garbi ikusiko dugu zer eragin duen. **2010ean, 5 kilo hondakin teknologiko zegozkion pertsona bakoitzari;** eta gaur egun, **2014an, biztanleko 6 kilo inguru zabor teknologiko ari gara sortzen**⁷¹.

Makro-datu horiek interesgarriak badira ere, ezinbestekoa da zorrotzago aztertzea, hondakin teknologikoen errealitatea eta irismena hobeto ulertu ahal izateko.

KONTINENTEA	ZABOR % TEKNOLOGIKOA	MILIO TONA	HONDAKINAK BIZTANLEKO
ASIA	% 94,1	16	3,7 Kg/bizt.
AMERIKA	% 38,3	11,7	12,2 Kg/bizt.
EUROPA	% 27,8	11,6	15,6 Kg/bizt.
AFRIKA	% 4,5	1,9	1,7 Kg/bizt.
OZEANIA	% 1,2	0,6	15,2 Kg/bizt.

Gogora dezagun 2014an batez bestekoa, mundu-mailan, pertsonako 6 kiloko zela ia; eta horrek esan nahi du batez bestekoarekiko desbideratze handienak Europakoak eta Ozeaniakoak adierazten dituztela.

Asiako kasuak harrizko gaitu agian gehien, teknologiaren ekoizle handiena izanda ere, batez bestekoarekiko zenbait puntuko aldea baitu (2.2 Kg/bizt.). Horrek esan nahi du izugarritzko

70 Basura Electrónica Dossier el País. <http://elpais.com/especiales/2015/basura-electronica/>

71 Rebelión [04-2015] Europa, a la cabeza en basura electrónica. <http://www.rebelion.org/noticia.php?id=198077>

arrakala dagoela kontinente horren ekoizpen teknologikoaren eta egiten duen kontsumoaren artean. Eta teknologia gutxi kontsumitzen duen gizarteak agerian uzten du bere egoera sozioekonomiko eskasa.

Hondakin ugariak, familietan bilduta⁷²

- 1. Lanparak, bonbillak, etab.:** 1 milioi tona
- 2. Informatikako objektu txikiak (inprimagailuak, monitoreak, telefonoak, routerrak, etab.):** 3 milioi tona.
- 3. Hodi katodikoko telebistak:** 6,3 milioi tona
- 4. Trukerako gailuak, ordezkoak:** 7 milioi tona
- 5. Gailu handiak (ontzi-garbigailuak, ekipamendu fotovoltaiakoak, haizagailuak, aire girotua):** 11,8 milioi tona
- 6. Objektu teknologiko txikiak (material medikoa, argiztapen profesionala, entzungailuak, argazki-kamerak, grabagailuak, bideokontsolak, etab.):** 12,8 milioi tona

Hondakinak nazioarteko konbentzioetan. BASILEAko konbentzioa⁷³

1980ko hamarkadan eta Nazio Batuen Erakundearen Ingurumen Programaren barnean, Basileako konbentzioa antolatu zen, ingurumena babesteko eta nazioarteko zabor-mugimenduak mugatu eta kontrolatzeko. 150 herrialdek sinatu zuten. Sinatzaileen artean zegoen Estatu Batuen herrialdea ere. Itun horrek esportatzen diren materialen egoera arautzen du, bai eta herrialdeen arteko prozedurak, etiketatzeak, zaborren garraioa eta abar ere.

Gaur egun ozeanoan zehar egiten diren aduana-ikuskapenak minimoak badira ere, behinik behin itun bat daukagu zaborrak garraiatzen eta batetik bestera eramaten direnerako; eta itun hori erabil dezakegu konpromisoak eskatzeko, irregulartasunak egiten direnean.

Baliabide horrek aukera ematen die erakundeei eta gizarte-mugimenduei publikoki salaketak egiteko eta estatu sinatzaileei konpromisoak eskatzeko, erabakitakoa noizean behin edota behin eta berriz betetzen ez dutenean.

Haurren eskubideak eta hondakinak

Normalean, pertsonarik ahulenak eta egoera zaugarrienetan daudenak izaten dira osasunerako arriskutsuenak diren zereginak egiteaz arduratzen direnak. Haur txikiez ari gara, hiru urtetik aurrerako haurrez. Hondakinen garraioak haurren eskubide eta nazioarteko itun guztiak urratzen ditu Hegoaldean (BASILEAko konbentzioa).

Zabortege horien inguruan osatzen den sistema ekonomikoa mafia-taldeek kontrolatzen dute, eta sistematikoki urratzen dira bai haurren eskubideak eta bai giza eskubideak.

Bizitzeko eskubidea

Zabortegeiek haien inguruetakoa errebalak kutsatzen dituzte; abortuak eragiten dituzte, bai eta oraindik jaio ez diren haurrek bizi osoan pairatuko dituzten malformazioak eta gaixotasunak ere.

Jaiotzen diren haurrek, hiru edo lau urte dituztenetik, zaborrez inguratuta lan egiten dute, eta ke toxikoen eraginak jasaten dituzte. Inguru horietan, oso altua da haurren heriotza-tasa⁷⁴. Oso-

72 The Global e-Waste Monitor 2014. <https://i.unu.edu/media/ias.unu.edu-en/news/7916/Global-E-waste-Monitor-2014-small.pdf>

73 Euro-Lex Convenio de Basilea sobre la eliminación de residuos peligrosos. <http://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/?uri=uriserv:l28043>

74 Doc. TVE. Basura electrónica en África <https://www.youtube.com/watch?v=HLdAhwL5zYw>

tasun fisikorako eskubidea edota gehiegikeriak jasan beharrik ez izatekoa ere ez dira betetzen zabortegi handietan. Kontrol eta segurtasun faltak bortxaketa, lapurreta eta hilketa ugari gertatzea ahalbidetzen du. Inguru horietan, neskek ere aritzen dira lanean, toki batetik bestera janaria saltzen, bereziki, eta are gogor eta arriskutsuagoak dira toki horiek neskekentzat. Egunero gertatzen dira ebasketak, bortxaketak eta jazarpenak.

Hezkuntzarako eskubidea

Zaborrak hartzen du sistema osoa, eta sistema horren oinarriak ere aldatu egiten ditu, ohiko baliabideen arteko erlazioa goitik behera aldatuz eta pobrezia-dinamika sakonak eraginez. Askotan, errebaletan bizi diren haurrak eskola amaitu eta gero joaten dira lanera. Ez dute ikasteko eta beren gaitasunak garatzeko denborarik. Gehienek, beharrak edo dirua azkar lortzeko nahiak bultzatuta, eskolara joateari uzten diote, eta lan arriskutsuak egiten dituzte, helduek ere egin nahi izaten ez dituztenak.

Osasunerako eskubidea

Osasunaren Mundu Erakundeak dioenez, pobrezia jotako Afrikako herrialde batean jaiotzen den haur batek Ameriketako kontinentean jaiotako haur pobre batek baino **10 aldiz probabilitate handiagoa du hiltzeko**, eta Islandian jaiotako haur batek baino **100 aldiz probabilitate handiagoa**.

Kableak erretzeak kable horiek erretzen dituzten pertsonak kutsatzen ditu, eta gas toxikoak kilometro askora hedatzen dira. "Kilometro askoko" ingurune hori ez dute uzten ez haurrek, ez amek, ez gizonek, jaiotzen direnetik hil arte. Biriketako arazo ugari sortzen dira, beraz. Kable-instalazioetako segurtasun-araudien ondorioz, kobrea eta horrelako beste osagai batzuk suaren kontrako plastikoa erabiliz estaltzen dira, eta, horiek lortzeko, oso tenperatura altuak jasan behar izaten dituzte. Zeregin horietarako sua plastikoak eta isolatzaileak erreaz lortzen dute, eta material horiek oso toxikoak dira; ke beltz toxikoen adar handiak sortzen dituzte, eta ingurumenean gelditzen dira.

Ur-iturri segurak eskura izatea ere arazo larri bihurtzen da testuinguru horretan. **Egoera txarrean dagoen uraren kontsumoarekin lotuta, arazo ugari sortzen dira (munduko haurren heriotzen % 80 arrazoi horrek eragindakoak dira; 4.000 haur inguru egunean).**

Dimentsio anitz biltzen ditu osasunak bere baitan, eta, beraz, beste hainbat faktorek ere eragiten diote; horietako bat, garrantzitsuenetarikoa, hezkuntza da. Pertsonak bizi-itxaropen handiagoa edo txikiagoa izatea ere hainbat alderdirekin lotuta dago: oinarrizko maila izatearekin edo alfabetizazioarekin, esaterako, edota beste ikaskuntza zorrotzago batzuekin, hala nola zenbait arau, jarrera, balio eta abar barneratzearekin. Bi faktore horien arteko lotura zuzen-zuzenekoa eta oso indartsua da, bere baitan baitauka aldatzeko indarra; horregatik, ezinbestekoa da dinamika bertutetsu horri eustea, eta ez biziitzea edota galbideratzea.

Elikadurarako eskubidea

Zabortegi handien inguruan gauzatutako ekonomia iraupen-ekonomia bat da, batez ere txikieneztat. Eguna bukatzerako haurrek ez badute mineral-kopuru nahikoa erauzi, ez dute soldata jasotzen, eta ezin dute janaria erosl. Bestalde, inguruan dituzten baliabide urriak arriskutsuak dira giza kontsumorako. Merkurioa, artsenikoa, kadmioa, gasak eta keak jasan dituzte elikagai horiek, eta arriskua sortzen du horrek, baina jangarri bihurtzen ditu beharrak eta ezjakintasunak.

Ura izateko eskubidea

300 milioi afrikarrek ez dute ura eskura. Kontua ez da horietako askok urik ez dutela; ura kutsatuta datorkie, eta horixe da arazoa. Euriak beruna, zinka eta artsenikoa arrastatzen ditu, eta lurpera eramaten ditu metal horiek. Hortaz, inguruko akuifero urriak kutsatu egiten dira, eta

ibaiak suntsitzen ditu, beltz eta kutsatuta uzten baititu. Arrainak hil egiten dira, edota, bizirik irauten badute, kaltegarriak dira. Hala zioen arrantzale batek: "Bizirik jarraitzen duten arrain gutxi horiek oso txikiak dira, eta, jaten badituzu, izugarrizko tripako mina izaten duzu". Hala ere, arrantza horretako produktuak merkaturatu egiten dira inguru horietan. Osasunerako eskubi-dearen atalean ikusi dugu, gainera, **egoera txarrean dagoen ura edateak** –Oxfam eta Water Aid erakundeen arabera– **egunean 4.000ren bat haur** hiltzen dituela.

Nortasunerako eskubidea

Inguru hauetan, nortasuna ez da alderdi garrantzitsutzat hartzen, inondik ere ez; izan ere, erakundeek abandonatuta eta ahaztuta dauzkate. Estaldura, babesa eta integrazioa: nortasunerako eskubidetik datozen hiru eskubide horiek ezinezkoak dira baldintza horietan. Pobreenen nortasuna ez da kontu nazionala, nazioz haraindiko zerbait da. Gehien pobretutakoek pentsa dezakete eskualde bateko kide direla, baina, egiaz, bakardadean bizi dira. Askotan, ez daukate ezer familiarik harago. Eta, maiz, pobre izate hutsagatik, haien nortasuna gehiago da eragozpen, gainerako herrikideekiko harremanak indartzeko bide baino. Adingabeen kasuan, are handiagoa da haien zaurgarritasuna, pobrezia-egoerak eta sinesmen kulturek bultzatuta, gurasoek abandonatu egiten baitituzte askotan, edota, beste zenbaitetan, saldu egiten baitituzte.

Babeserako eskubidea

Zabortegietan, diru-kopuru handia mugitzen da. Estatuak, bere aldetik, ez da gai lurralde horiek kontrolpean izateko. Hori dela eta, ahaztutako inguru horietako bizitza arautzeaz arduratzen direnak, askotan, mafiatan antolatzen dira. Mafia-sistema horrek bere arau bereziak ditu, bestela, ezin izango bailioke eutsi baliabideen gaineko kontrol horri. Baina arau horiek arbitrarioak dira, eta larriagotu egiten dute adingabeen egoera. **3-4 urtetik aurrera, lanean hasten dira umeak, "suaren kontrako" materialak erretzen.** Eskualde horietan eta horrelako jardueren ondorioz, afrikar haur behartsu batek europar haur behartsu batek baino 100 aldiz probabilitate handiagoa du hiltzeko.

Gainera, maila psikologikoan, behar bezalako prestakuntza jaso ez duten pertsonen gaineko presioak izan ditzakeen ondorioak ere izan behar ditugu kontuan **Europan, hiru urteko haur bategi ziuurrenik ez du bakardaderik edo babesgabetasunik sentitu; aldiz, Afrikako leku horietan, adin bereko haurrak noraezean ibiltzera, lanera eta bizibidea ateratzera behartuta daude.**

Askatasunerako eskubidea

Norberaren askatasuna oso lotuta dago hezkuntzarekin. Haur askok, beharrak edo dirua azkar lortzeko nahiak bultzatuta, lan gogor eta arriskutsuak eskolarekin bateratu behar dituzte. Haur horiei lana ematen dietenak edozertarako prest daude haur horiek ikusezin bihurtzeko, eta, beraz, gai dira haien gain erabateko kontrola ezartzeko. Baldintza horietan, ezinezkoa da haur horiek beren buruaren jabe izatea.

Adierazpen-askatasuna eta pentsamendu-askatasuna desagertu egiten dira inguruan eta gizartean bizi dituzten baldintza horietan.

ZER EGIN DEZAKEGU?

Lehen Munduko herritar garen heinean eta Hegoaldeko jende behartsuari gure kontsumo-ohituren bidez bizi-baldintza zitalak ezartzen dizkiegunez, gure betebeharra da, etikoki eta moraliki, **gure ekintzen kontzientzia hartzea, eta justizia globalarekin bat datozen balioen arabera jokatzeta.**

Jendea pobreago egiten dute gure aukerek. Ez ditugu egiten egin behar genituzkeen zenbait gauza, eta sistema egoista eta axolagabe horrekin bat egiten dugu horrela. Une egokia da hau

gogoetarako, mundu hobe baten alde egiteko norberak eta gizarteak izan dezakegun aukeratzat hartzeko kontzientzia-hartze hori. Gure borondateari eusteko **ohiturak sortu** behar ditugu, modak sortzen duen liluraren aurrean, benetako beharrak eta behar faltsuak argi bereizteko. Adibidez, gure telefono mugikorren bizitza erabilgarria luzatzea aukera egokia izan daiteke horrelako jarrerak hartzen hasteko edota sendotzeko.

Horrez gain, ezinbestekoa da **tresna elektronikoa birziklatzea, tresna horiek biltzen dituzten instalazioetan** edo udalek eta baimendutako kudeatzaileek zehaztutako garbiguneetan. Beste aukera bat ere badago, horren ezaguna ez dena: produktu teknologiko bat erosten dugunean, produktu horren bizitza erabilgarria amaitzean hura jasotzeko tasa bat ordaintzen ari gara. Beraz, produktu horiek saltzen dituzten dendak behartuta daude erabilitako tresnak jasotzera berrira saltzen dutenean⁷⁵.

Hondakinak berriro erabiltzeko beste aukera bat baliabide gisa hartzea da, hau da, **sortzaileak izatea**, eta bizitza erabilgarri berri bat ematen saiatzea, beste gauza baterako erabiliz, sorkuntzarako nahiz artelan baterako, adibidez. Mundu osoan, webgune asko daude materialei eta diseinuei buruz jendeak emandako ideiak jasotzen dituztenak: teklatuak artea egiteko erabil daitezke, telebista zaharrak armairu edo arrainontzi moduan, etab.

Zabor teknologikoaren arloan norberak egin ditzakeen ekintzek garrantzi izugarria hartzen dute, aktibismo sozialen esparruan txertatuz gero. **Funtsezkoa da informazioa biltzea eta jendea informatzea, edota** jendeak masiboki erabiltzeko produktu kutsatzaileetan zaharkitzapen programatua ezartzen duten enpresei boikota egitea. Zenbait boikot nahiko konplexuak irudituko zaizkigu agian, informazio faltagatik. Baina iragarkiak azter ditzakegu, eta kontsumo inkontzientea zer enpresak sustatzen duten eta prezio merkeegian zer enpresak saltzen duten jakiten saia gaitzake. Edozein objektu merke, kalitate txikikoa izanda ere, kostu sozialak edo ingurumen-kostuak hartuko ditu barnean, eta ez dugu halakorik sustatu nahi.

Amaitu aurretik, kontsumo arduratsuen eta birziklatze errentagarriaren arloko bi adibide azaldu nahi dizkizuegu, bata enpresa-alorrekoa eta bestea estatu-mailakoa:

- Telefoniaren sektorean aritzen da **Fairphone enpresa**. Mugikor zaharrak eta gatazkatsuak ez diren materialak birziklatuz, giza eskubideak eta haurren eskubideak errespetatzen dituzten produktuak sortzen ditu. Hau da, bidezko merkataritzara gerturatzen den teknologia-mota bat da.
- **Suitzako estatuaren** adibidea paradigmaticoa da, hondakin teknologikoak birziklatzeari dagokionez. Europan, horrelako hondakinen % 25 inguru birziklatzen dugu; aldez, Suitzan, % 80tik gora birziklatzen dute. Teknologian inbertsio handiak eginez, telefono mugikorrek, ordenagailuek edota pantailek dituzten metal baliotsu guztiak ia automatikoki ateratzen dituen fabrika bat garatzea lortu dute. Horixe dela meatzaritza berria diote, baina merkeagoa da, langileek lan-baldintza hobek dituzte, eta aztarna ekologiko txikiagoa uzten du.

Kasu-azterketa: gure ekintzen irismenari buruzko gogoeta

- **Malariaspot app-a:** gaur egun, ezinezkoa iruditzen zaigu teknologia bazter utzita bizitzea. Egunero-egunero, tresna elektriko berriak merkaturatzen dira, maila batean edo bestean gure bizitza errazten duten tresnak. Horiek esker, hobeto komunikatutako mundua da gurea, mundu txikiagoa. Aisialdiko jarduerak, medikuntza, arlo guztiak hartu ditu teknologiak. Tresna teknologikoen erabileraren muga giza adimenak jartzen duen unera iritsi gara, eta zoragarria da hori. Horren adibide dugu Malariaspot aplikazio mugikorra: gaixotasun horrek eragin handia duen herrialdeetako malaria-laginak analiza ditzakegu berorren bidez (<http://>

75 [Real decreto 110/2015]

malariaspot.org/es/sobre-nosotros/malariaspot/). Kostuak murrizten ditu aplikazio horrek, eta telefonoa edo tableta duen edonori aukera ematen dio malaria-laginak identifikatzen ikas-teko eta milaka kilometrora dauden pertsoneri laguntzeko.

- **Gure ekintzen arteko erlazioa:** gauza zoragarriak egin baditzakegu ere, ez dugu begien bistatik galdu behar ikuspegi panoramiko osoa. Argi eta garbi ulertu behar dugu gure kontsumo-ohituren eta herrialde pobreetako pertsonen bizi-baldintzen arteko erlazioa, oso erlazioa estua baita. Hemen gure bizi-erata errazten digun material teknologiak asko zailtzen die bizi munduko beste herrialde batean bizi diren pertsona batzuei. Zehazki: hondakin teknologikoez ari garenean, esan nahi dugu hondakin horiek Iparraldetik Hegoaldera eramaten direla, horiek birziklatzea garestiagoa delako, juridikoki, ekonomikoki, politikoki eta ingurumenaren aldetik araudi laxoagoak dituzten herrialdeetara eramatea baino. Beraz, milioika tona zabor bidaltzen dizkiegu urtero. Zabor horrek haien baliabideak kutsatzen ditu, haien bizimodu tradizionala suntsitzen du, eta herritarren askatasuna urratzen duten mafia-taldeak sorrera sustatzen du
- **Afrikako ipuina: “ZURE ARAZOA, NIRE ARAZO”**

Bazen behin emakume zahar bat, bere etxolan suge batekin, txori batekin eta beste zenbait animaliarekin bizi zena. Txoriak arrautza jartzen zuen bakoitzean, sugeak jan egiten zuen. Txoria, egoera hura jasan ezinda, emakumearengana joan zen, eta esan zion mesedez sugeari bere arrautzak gehiago jan ez zitzaizkion esateko, elkarrekin bizilagun on gisa bizi zitezkeen. Emakumeak erantzun zion ez zela hura bera arazoa, eta eskatzeko laguntza beste nonbait.

Saguarengana joan zen hurrena txoria, atsoarekin hitz egin zezan eta hark sugeari haren arrautzak jan ez zitzaizkion eskatzeko. Baina saguak biboteak leundu zituen, eta esan zion atsoaren etxean bizi zela, baina ezkutuan. Ikusten bazuen, hil egingo zuela. Gainera, txoriak eta sugeak zuten arazoa bien arazoa zen, ez zen saguaren arazoa.

Armiarmarekin hitz egitera joan zen orduan txoria, eta esan zion ea hitz egingo al zuen emakume zaharrarekin, bien artean bitartekari-lanak egiteko eskatzeko; baina armiarmak esan zion gauzez egiten zuen guztia apurtzen zuela atsoak egunez, eta ez ziola aurre egingo emakume hari, berea ez zen arazo hura konpontzeko; laguntza nahi bazuen, joan zedila beste norabait.

Azkenean, txakurrarengana jo zuen txoriak, saguari eta armiarmari eskatu ziena eskatzeko hari ere; eta gogorarazi zion etxola berean bizi zirela guztiak, eta elkarri lagundu behar ziotela; gau oso osoa atsoaren etxola zaintzen ematen zuela erantzun zion txakurrak, eta hark, trukean, andreak seme-alabek utzitako apurkinak baino ez zizkiola ematen jateko. Beste norbait bilatzeko esan zion, kontu hark ez zeukala zerikusirik berarekin.

Inork laguntzen ez ziola ikusita, guztiak bildu zituen txoriak azkenean, eta esan zion zoritxarraz ez zirela inoiz banaka etortzen, eta bakeak soilik ekar zezakeela bizilagunen arteko giro ona. Oraingoan ere kasurik egin ez zenez, pospolo bat hartu zuen ilusentian, eta su eman zion etxolari. Hantxe hil ziren guztiak.

Zer ikus dezakegu?

- TVE1eko dokumentala: “Basura en África”: <https://www.youtube.com/watch?v=HLdAhwL5zYw>
- TVE en portada: “Ciberbasura sin Fronteras” <https://www.youtube.com/watch?v=KirbKJelV28>
- “Basura tecnológica, la intoxicación silenciosa”. <https://www.youtube.com/watch?v=FtS2fuveBlw>

Jardueren glosategia, web interaktiboak eta iturri orokorrak

- <http://www.humanium.org/es/derecho-agua/>
- http://www.un.org/spanish/waterforlifedecade/human_right_to_water.shtml
- <http://www.humanium.org/es/derecho-proteccion/>
- http://www.eldiario.es/desalambre/Agua-El_Salvador-Coca_Cola-Medio_Ambiente_0_397560950.html
- <http://www.alianzaporlasolidaridad.org/noticias/coca-cola-no-le-quites-el-agua-a-30-000-personas-en-el-salvador>
- http://www.elpais.com/elpaismedia/ultimahora/media/200810/29/sociedad/20081029elpepusoc_1_Pes_PDF.pdf
- http://www.2015ymas.org/IMG/pdf/Sostenibilidad_Ambiental.pdf
- <http://www.iagua.es/blogs/josefina-maestu/el-agua-y-la-agenda-post-2015>
- http://www.eldiario.es/desalambre/Agua-El_Salvador-Coca_Cola-Medio_Ambiente_0_397560950.html
- <http://www.alianzaporlasolidaridad.org/noticias/coca-cola-no-le-quites-el-agua-a-30-000-personas-en-el-salvador>
- <http://www.alianzaporlasolidaridad.org/wp-content/uploads/Maq.-Tierra2.pdf>
- <http://www.ine.es/revistas/cifraine/0108.pdf>
- http://w2.vatican.va/content/dam/francesco/pdf/encyclicals/documents/papa-francesco_20150524_enciclica-laudato-si_sp.pdf
- <http://waterfootprint.org/en/water-footprint/what-is-water-footprint/>
- http://www.who.int/water_sanitation_health/diseases/wsh0302/es/
- http://www.who.int/water_sanitation_health/diseases/WSH03.02.pdf?ua=1

Aquastat FAO datu-basea

- <http://www.fao.org/nr/water/aquastat/data/query/index.html?lang=es>
- <http://www.fao.org/nr/water/aquastat/didyouknow/indexesp.stm> - Datos, Informe

Baliabide grafikoak

- http://www.fao.org/nr/water/aquastat/maps/World-Map.TRWR.cap_esp.htm Mapa
- http://www.fao.org/nr/water/aquastat/tables/WorldData-IRWR_esp.pdf Tabla disponibilidad agua dulce
- <http://www.fao.org/nr/water/aquastat/data/query/index.html?lang=es> Data-Base
- http://www.fao.org/nr/water/aquastat/infographics/Clouds_esp.pdf
- http://www.fao.org/nr/water/aquastat/infographics/Transboundary_esp.pdf
- <http://3.bp.blogspot.com/-kn4t2cGzn-Y/UmRkco1wkHI/AAAAAAAAEEg/70uMnZqXD4E/s1600/Gasto+de+agua+en+alimentos.jpg>